

# noaua



**“Maitasunetik gatozelako,  
goaz maitasunera”**



**PSU**  
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

GOLDWELL  
ELUMEN

*i  
l  
e  
a  
p  
a  
i  
n  
d  
e  
g  
i*

**m**  
**I**  
**mistoa**

Koloraziotan teknika  
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

## HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

**2017-18 MATRIKULAZIOA IREKITA**  
Urtarrilaren 26ra arte

- GRADUKO IKASKETAK (D.B.H)
- INFORMATIKA IKASTAROAK
- EUSKARA (OINARRIZKOA)
- INGELESA MINTZA PRAKTIKA
- FRANTSESA

ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 [info@epalasararte.eus](mailto:info@epalasararte.eus)  
[www.epalasararte.eus](http://www.epalasararte.eus)

Usurbilen,  
zure auto-tailerra



**Atallu**

**AUTOAK** >>>>

Motorra  
Balaztak  
Mekanika  
Esekidurak  
IAT-aurrekoa  
Pneumatikoak  
Ihes Kanalizazioak  
Injekzio Elektronikoa  
Berehalako Zerbitzua

DOHAINTIK

IAT-aurrekoa  
Pneumatikoak  
Ihes Kanalizazioak  
Injekzio Elektronikoa  
Berehalako Zerbitzua



Atallu Industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / [atalluautoaki@gmail.com](mailto:atalluautoaki@gmail.com)

## Albiste irudituan

# Vicente Del Bosque, Saizar sagardotegiko txotx irekieran

**T**xotx bolada berria festa giroan eta aurpegi ezagun ugariaren artean abiatu zuten urtarrilaren 11n Saizar Sagardotegian. Guztien artean, sagardo berria dastatzen lehena, Vicente del Bosque izan zen. Txotxetik jaurtitako lehen tragoa zuen edalontzia eskuarte altxa eta "hau da Usurbilgo Saizar sagardo berria!" esanez, 2018ko denboraldia abiatzeko ohorea izan zuen futbol hautatzaile ohiak.

Del Bosqueri eskaini zioten aurrekoa eta Andoni Egaña ere bertsoa bota zion, Julian Iantzik aurkeztu eta Kepa Junkera eta Sorginak taldekoek girotu zuten ekitaldian. Afaltzera joan ziren gero, sagardotegira bertaratu ziren aurpegi ezagun eta herritarak.



"Hau da Usurbilgo Saizar sagardo berria!" esanez, 2018ko denboraldia abiatzeko ohorea izan zuen.

## Laburrean

### Urtarrilaren 23an, Kultura Aholku Batzarra

Kultura Aholku Batzarra deitu dute datorren astearterako, urtarrilaren 23rako, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. "Zirra-ra" diru-laguntzen inpaktua neurtzeko metodologiaren eta kulturako diru-laguntza deialdiaren berri emateaz gain, bertaratzeko diren ekarpenak bildu nahi dira.

### Urtarrileko kantu-jira eguerdiz egingo da

Kantu zaleek arratsaldetik eguerdira aurrreratu dute 2018ko lehen kantu-jira. Urtarrilaren 27an irtengo dira kantuan kalez kale, 12:00etan Mikel Laboa plazatik. Bestetik, astelehenero biltzen dira Udarregi Ikastolaren Agerialde eraikineko musika gelan, 18:00-19:00 artean.

### Otsailaren 10ean, ospetsuen moztorro festa

Aurpegi ezagunez bete nahi dugu herria otsailaren 10ean. Ospetsuen Inauteri Festa ospatzera goaz.

Kalejira eta musikarik faltako ez duen jaialdirako hiru aste baino ez dira falta. Prestatzen hasi. Xehetasun gehiago hurrengo asteetan.

# noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noqua.eus ||| www.noqua.eus  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordintzailea:**  
Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noqua.eus

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**  
**erredakzioa@noqua.eus:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Ekhi Arrieta.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

## Guztion osasunaz kezkatzea, debekatua

**A**dierazpen askatasuna zenbateraino ari diren mugatzen. “Kontu handiz” ibili beharra dagoela sentiarazi nahi digute. Kontuz ahoz, nahiz idatziz ere zer aldarrikatzen dugun. Adierazpen askatasuna isilarazi dezaketen zentsura, isun edota norbere bizitza dezentte zailldu dezaketen bestelako neurri gogorragoek hatzapar luzeak, geroz eta luzeagoak dituzte bistan denez.

Nabaria da itxuraz guztiaz hitz egin daitekeen garai hauetan, horretarako inoiz baino hedabide gehiago gure eskura ditugunean, ahoa ireki edo idazteko inoiz baino oztopo gehiago dagoela. Esan gabe, denok dakigu zer, non eta nola adierazi “dezekegun”. Baina batez ere zer “ez”. Muga ikusezin hori, nahiko argi ikusi dugu urte luzez Euskal Herrian.

Eguneroko keinu handi eta txikiekin bistaratu izan

digute. Eta ikusi, entzun eta irakurtzen segitzen dugu. Gai orokorretan, baina baita loka-lagoetan ere. Erraustegiaren gaia hor dugu esaterako. Soilik azken bi urteak aintzakotzat hartuta, hor ditugu Gipuzkoa Zutik mugimenduaren kanpaldia debekatzeko izan ziren gertakariak; joan den udan, egun batetik bestera, erraustegirako gas hodiak sartzeko zubietarrei herri bidea itxi zietela berri emateko izan genituen zailtasunak.... Orain, osasunarekiko kezka agertzen duten pankarta batzuk dituzte jomuga.

Lasarteko Landaberri ikastolari gertatu zaio. Aste hasieran haien idatzi bat jaso genuen. Kezkatuta. Erraustegia erakitzen ari diren eremutik kilometro erdira dago ikastola. Gutxienik bi urte daramatzate, erraustegiak hezitzaile zein ikasleen osasunarengan izan ditzakeen ondorioekiko kezka publikoki agertzen. 2016az geroztik, gutxienik bitan gutunak

bidali izan dizkiete Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Gipuzkoako ordezkariari. Ordezkari honek Donostiako Alderdi Eder ondoan duen egoitza atarian ere agerraldia egin zuten orain urtebete. Baina erantzunik ez joan den urte amaierara arte. Azaroan heldu zitzairen, Hezkuntza Ordezkariaren erantzuna, edo hobe kiago esanda, agindua. Ahoz.

Debeku argia jaso zuten, eraikin inguruetan ezarriak dituzten pankartak kentzeko agindua. Baten batek galdetu dezake, pankartok ia zer ote zioten. Batek “arnastu dioxinak”. Kea isurtzen ari den erraustegia eta haren ondoan, haurrak eta burezurak irudikatatu zituen. Besteak, “500 metro tara errauskailua” ohar tarazten duen mezua agertzen zuten, kea isurtzen ari den errauskailuaren marrazkiarekin.

Erraustegiaren aurkako eta birziklatzearen aldeko beste

pankarta bat ere bazuten. Eta azkena, triangelu formako trafikoko seinale baten marrazkiaren baitan, kea isurtzen ari den erraustegia, eta ondoan, eskutik helduta doan guraso bat irudikatu zuten haurrekin. “Kezka” hitza idatzia zuen.

Kezkatzea, horixe da debekatu dietena. Adierazpen askatasuna soilik ez, haien, baina baita bidez batez, pankartak kentzeko agindua eman dutenen osasunaz kezkatzeko eskubidea. Kezka adierazi ahal izatea isilarazi nahi izan diete. Zeini eta etorkizuneko belaunaldia, ohitura osasuntsu eta jasangarrietan hezten ari den ikastola bati. Txalogarria bertako hezitzaileen eguneroko lana, eta are gehiago, erraustegiak kalte diezagukeen osasunarekiko kezka plazaratzeko egiten ari diren ahalegina. Biba zuek!

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

## Xuaren lehen urtebetetzea

**I**zar, Haitz eta Xua, amekin espetxean bizi diren euskal preso haurrak ditugu. Eta ondokoa, haientzat joan den larunbatean Bilbon Sarek deitutako manifestazioaren aurretik Areatzan egokitu zuten karpagunean Porrotzekin ateratako elkartasun argazki erraldoia. Motxiladun umeek eginiko deialdiak babes zabala izan zuen bistan denez. Milaka lagun batu zituen “Prest gauden” mobilizazioan parte hartu zuten gero, autobusez joan dako ehunka usurbildarrek.

Motxiladun umeak, gurasoetako bat edo biak espe-



Amarekin etxean bizi diren preso haurrak hiru dira. Bat, Xua. Irudia: Sare.

txean dituzten haurrak dira. Kolektibo honen baitan da, ostiral honetan bertan, urtarrilaren 19an lehen urtea espetxean beteko duen Xua, Olatz Lasagabaster eta Patxi Uran-

garen haurtxoa. Urtea beteko da baita, Xuaren jaiotzaren harira, amona Mari Karmen Anza biloba bisitatzeraz joan, ondoezik sentitu eta hilabete Valentziako ospitaleko ZIU-n

eman zuenetik. Urtebete, Patxi alaba ezagutu ahal izateko hiru aste igaro behar izan zirenetik. Xua jaio zenetik Valentziako Picassent espetxean da amaren alboan, sorterritik 600 kilometrotara.

### Urtarrilaren 26koa, elkarretaratze berezia

Urtemuga honen harira, hurrengo asteko NOAUA!-rako Mari Karmen Anza elkarrizketatu dugu. Xuaren lehen urtebetzearen harira, elkarretaratze berezia deitu du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak, urtarrilaren 26rako 20:00etan Mikel Laboa plazan.

# 2018rako udal aurrekontuak, alegazio epean

U surbilgo Udaleko udalbatzak hasieraz onartu zituen 2018rako udal aurrekontuak abenduaren 19rako deitu zuten ezohiko osoko bilkuran. Guztira, 11.312.981 euroko aurrekontuak. Hiru ardatz nagusietan oinarritzen dira udal aurrekontuok. Herri jasagarria izatea, herri nortasuna indartzea eta ongizartea sustatu nahi dituzte.

Helburuok gauzatzeko bidean, sarrera eta gastuak orekatzea ezinbestekoa izan zaiela adierazi dute. Sarrerak zuhurtziaz kalkulatu eta gastu arruntak ahal den neurrian mugatu dituzte, inbertsioetarako diru gehiago izateko. Gizarte politikari bere horretan eutsiko die udal gobernu taldeak, murrizketarik egin gabe. Udal baliabideak herritarren zerbitzura jarriko dituzten aurrekontuak sustatu nahi ditu udal gobernu taldeak. “3 eurotik 1” eremu honetara bideratuko dute. Azkenean, kalitatezko zerbitzu publikoen aldeko apustua berresten du modu horretan EHBilduk.

Aurrekontuak udal talde, langile edota herritar zein eragileei aurkeztu zitzaizkien azaroan zehar. Hainbat ekarpen aintzakotzat hartu ditu udal gobernu taldeak. Oposizioak ere gauza bera egiteko aukera izan arren, EAJ eta PSE-ko udal ordezkariak ekarpenik ez zutelako egin gogorazita, udal gobernu taldeak osoko bilkuran zioten,



Guztira, 11.312.981 eurokoa izango da 2018ko udal aurrekontua.

## UDAL AURREKONTUAK

### Urtarrilaren 4az geroztik erreklamazioak aurkezteko hamabost laneguneko epea dago

“ez dugu ekarpenik jaso. Udal aurrekontuokin ados egongo zaretela ulertzen dugu”.

#### Oposizioaren hitzak

Oposiziotik ordea aurrekontuon aurka bozkatuko zutela iragarri zuten. EAJ-k Zumarte Musika Eskolarako aurreikusita dagoen 2 milioi euroko inbertsioa udal aurrekontuetan txertatu ez zuelako udal gobernu taldeak. PSE-k berriz, eskola publikoaren gaiagatik. Iaz gobernu taldeari Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin biltzeko galdegin zuela gogorazita zuten Fermin Oruek, baina “12 hilabete pasa dira eta iaz bezala gaude”.

Zumarteren gaiari dagokionez, musika eskolaren eraikina berriro eta handitzeko konpro-

misoa erabatekoa dela argi utzi zuten udal gobernu taldeak. Kontu tekniko bat baino ez dela 2 milioi euroko inbertsioa udal aurrekontuetan ez txertatzea eta modurik egokienean kudeatu dutela gaia. Lanak urte honetan bertan hasiko dituztela ere iragarri zuten.

Eskola publikoaren gaiari dagokionez, udal gobernu taldeak Hezkuntza Sailarekin biltzea bitan eskatu dutela aditzera eman zuten, gai honen jarraipena egiten ari direla, baina oraindik ez dutela jaso Jaurlaritzaren erantzunik.

Azkenean, EHBilduko udal ordezkariak babesarekin hasieraz eta gehiengo osoz onartu zituzten 2018rako udal aurrekontuak. Kontra bozkatu zuten EAJ eta PSE-eko zinegotziek. Urtarrilaren 4az geroztik erreklamazioak aurkezteko hamabost laneguneko epea zabaldua du Udalak. Tarte honetan, erreklamaziorik ez balego, behin betiko onartuko dira urte berrirako udal aurrekontuok.

## Udal lanpostuak

Ohi den moduan, 2018rako udal aurrekontuekin batera urte berri honetarako udal lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoak ere hasieraz onartu zituen udal-

batzak abenduaren 19ko ezohiko osoko bilkuran. Alegazioak aurkezteko 15 eguneko epea dago, Udalak erabakiaren berri ematen zuten iragarkia urtarrila-

ren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuenetik. Tarte horretan erreklamaziorik egongo ez balitz, behin betiko onartutzat joko dira.

## Zumarte Musika Eskolaren birgaitzea, Udalaren 2018ko inbertsio nagusien artean

2018ari begira 11.312.981 euro izango ditu Usurbilgo udalariak gastuei aurre egin eta egitasmo ezberdinak gauzatzeko. Azken hamarkadan aurrekontu baxuena izan zuten 2013. urtearekin alderatuta (orduan, 10.033.478 euroko aurrekontuak) 1,2 milioi euro gehiago izango ditu udalari honek aurtengoa.

2013arekin alderatuta, 2018rako ia bikoiztu egin du Udalak inbertsioetara bideraturiko dirutza. Aurten, 2 milioi euro gehiago batu zaizkie partida hauei. Nabarmentzeko baita Zumarte Musika Eskola birgaitzeko lanak abiatuko direla aurten. Gogoan izan, 2 milioi euro bideratuko ditu Udalak egitasmo honetara. 10 urteetan ordaindu behar harko duen kredituari aurre eginez ordainduko dira musika eskola handitu eta berritzeak eragingo dituen gastuak.

Inbertsio gehiago ere egingo ditu Udalak, diru-laguntzen aldeko apustua egitearekin batera. Herriko talde eta eragileen lana babesten segitzeko konpromiso irmoa izaten segitzen du. 2018ko datua horren adierazgarri; ia 800.000 euro banatuko ditu Udalak diru-laguntzetan.

## Aurrekontuen bilakaera, zenbakitan

- 2008: 12.925.163 euro.
- 2009: 13.200.000 euro.
- 2010: 13.042.840 euro.
- 2011: 13.903.890 euro.
- 2012: 10.982.729 euro.
- 2013: 10.033.478 euro.
- 2014: 10.360.521 euro.
- 2015: 10.482.470 euro.
- 2016: 10.705.129 euro.
- 2017: 11.057.464 euro.
- 2018: 11.312.981 euro.

# Gorputz adierazpenean hezten

Ikastolak mende erdia beteiko duen urte honetarako hainbat ekimen antolatzen ari da Udarregi Ikastola. Urtemuga, ikastolan bertan martxan dituzten hainbat proiektu gizarteratzeko ere baliatu nahi dute. “Gorputzaldiak” izeneko egitasmo interesgarria tartean. “Gorputzaldiak hezkuntzaren eta dantzaren arteko lan interdisziplinarretik jaiotako hezkuntza egitasmoa da, eta irakasleei hezkuntza formalean dantzaren bitartez tresna berriak eskaintzeko helburuarekin sortzen da, haien proiektu kurrikularra garatzen laguntzeko”, diote sustatzaileek.

Proiektua, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan laguntzen diharduen Lasarte-Oriako Berritzeguneak abiatu zuen, Ana Remiro eta Amaia Nabaskues dantzariekin. Esperientzia pilotu batzuen ostean, hainbat ikastetxeetara hedatu zuten gero, tartean Udarregi Ikastolara. “Gorputzaldiak” egitasmoak hiru helburu nagusi ditu: gai-



Gorputza dantzan jartzen dute ikasleek jolas eta ariketa ezberdinen bidez.

## HELBURU NAGUSIAK

**Bat: gaitasun sozio-afektiboa lantzea.**

**Bi: norberaren eta bestearen gorputz egoerak identifikatzea.**

**Hiru: taldeko mugimendu egoeretan kooperatzea**

tasun sozio-afektiboa lantzea, norberaren eta bestearen gorputz egoerak identifikatzea eta taldeko mugimendu egoeretan kooperatzea.

## Hirugarren ikasturtez

Udarregi Ikastolan Lehen Hezkuntzan dute martxan hirugarren ikasturtez proiektu hau. Gorputza dantzan jartzen

dute ikasleek jolas eta ariketa ezberdinen bidez.

Ariketa guztiek dituzte helburu eta eduki propioak. Unitateka, hainbat gaitasun sozio-afektibo landu eta barneratzen doaz: enpatia, konfiantza, integrazioa, asertibitatea, autokontzientzia, elkarreragina, sentsopertzepzioa, atentzioa, emozioak.

## Mihiaren orde, gorputza dantzan

Gaitasun sozio-afektiboetako bat hautatu eta horren inguruko lanketa bideratzen dute. Ikasleek gaitasun horri buruz zer jakin dezaketen ikusteko sarreratxo bat egiten dute saio hasieran, beroketa jolas batzuk segidan, eta gero, lanketa ariketetan murgiltzen dira. Hitzik ahoskatu gabe, isiltasunean, musikaren laguntzaz gorputza adierazpen bide bilakatzen dute. “Hitza jartzen denean desberdin adierazten da eta azkenean hautsi egiten da dinamika.

Hitzez gauza bat esan eta gorputzez beste zerbait esan dezakezu”, gogorarazi digute Udarregi Ikastolatik.

### Hitza, protagonista

Hitzak saio amaieran du protagonismoa, nahi duenak bizitakoa hitz eginez partekatu dezake. “Hitza jartzen zaio saioari nahi izanez bukaeran. Bakoitzak nola sentitu den, bizitakoa partekatu dezake”, diote ikastolatik. Aski interesgarria izan ohi da, hitzez adierazi ezin dena, gorputzez

nola adierazten ikasten duten ikustea.

Egiten dakiten horretatik abiatzen dira ikasleak. Gorputzez sentitzen dutena adierazten doaz, libreki, epaituak izan gabe. Bizipen berriak esperimentatzen doaz lanketan zehar. Saiotetan zehar bizi eta sentitutakotik ikasten dute. Taldean, elkarlanean gaitasun ezberdinak barneratzen doaz. “Gorputz adierazpena librea da. Askatasun horretan ezin da kritikatu, dantza eginez ezer ez dago gaizki. Ikaskun-

tza kooperatiboarekin lotzen da, elkarrengandik ikasten baitute”, nabarmentzen dute Udarregitik.

Hiruhilaberetro aipatu gaitasun sozio-afektiboetako bat lantzen dute lau astez, astero ordubetez. “Lau aste horiek bukatzean, egindako ariketekin, taldean bildu eta beraien gaitasun sozio-afektibo horrek irakatsi diena erakusteko dantza berri bat sortu behar dute, gorputza baliatuta”, adierazi digute Udarregi Ikastolatik.

# Otsailaren 3an, gurasoei zuzendutako saioa

Ikasleek ere egitasmo honi lotutako formazioa jaso dute eta "oso gustura aritu gara". Haien esperientziatik azaldu digute, haurrentzat bezala helduentzako ere baliagarri askoa dela egitasmo hau.

Ikasleekin lantzen ari direna ezagutzera eman nahian, otsailaren 3rako gurasoei zuzenduta antolatuta duten saio praktikoan parte hartzerantz animatzen dituzte amak eta aitak. "Unitate bat hartu eta umeek lau saio ezberdinetan egiten dutena guk saio bakar batean egitea da asmoa. Ariketa guztiak probatu, sarrera bat egin ariketekin, eta bukaera bat eman, bizitakoa nola ikusten duten partekatuz", Udarregi Ikastolatik NOAUA!ri adierazi diotenez.

## Izen ematea zabalik

Arropa erosoekin jantzita eta gorputz adierazpen libreari bi-



Gurasoak ere animatu nahi dituzte. Horretarako, "Gorputzaldiak" saioa antolatu dute otsailaren 3rako.

## OTSAILAREN 3AN

**Arropa erosoekin eta gorputz adierazpen libreari bidea eman eta parte hartzerantz animatzen dituzte gurasoak**

dea eman eta ondo pasatzera, parte hartzerantz animatzen dute.

30 bat kideko talde bat osatu asmo dute gehienez. Izen ematea zabalik dago.

## "Gorputzaldiak", gurasoentzat

- Eguna: otsailak 3, larunbata.
- Orduetgia: 10:00-12:00.
- Tokia: Udarregi Ikastolako jangela.
- Izen ematea: urtarrilaren

29ra arte dago zabalik. Helbide honetara idatzi:

gorputzaldiak@udarregi.eus

■ Oharra: haurren zaintza zerbitzurik ez da eskainiko.

■ Informazio gehiago: <https://sites.google.com/a/oriapat.org/gorputzaldiak/>

■ Antolatzailea: Udarregi Ikastola.

# Danborradak, Donostia Egunaren bezperan

Donostia Egunari aurre hartuz, bezperan ospatuko dituzte Aginaga eta Zubietako Eskolek, baita Udarregi Ikastolak ere, ikasleentzako danborrada saioak. Urtarrilaren 20a, Donostia Egunaren alegia larunbatez egokitu da aurtengoan. Ikasleak danborrada jotzera bezperan, hilaren 19an, ostiralez plazaratuko dira. Udarregi Ikastolako HH eta LHko ikasleak orduotan:

## Urtarrilak 19, ostirala Udarregi Ikastolan:

■ 15:45 HH-koen danborrada saioa Agerialden. Eguraldi txarra egingo balu, Agerialdeko patioan aterpean.

■ 16:10 LH-koen danborrada saioa Agerialdean. Eguraldi txarra egingo balu, Agerialdeko sarrerako frontoi txikietan.

■ Antolatzailea: Udarregi Ikastola.

## Tren zerbitzuak

Larunbateko Donostia Egunaren dela eta, tren zerbitzu bereziak eskainiko ditu Euskotrenek ostiral gauez, Usurbildik Donostiarantz, orduotan: 23:54, 0:54, 1:54, 2:54, 3:54, 4:54, 5:54, 6:54. Donostiatik Usurbila itzultzeko 60 minuturo baita: 22:50, 23:50, 0:50, 1:50, 2:50, 3:50, 4:50, 5:50. 14 minutuko iraupena dute joan etorriok.

Tren zerbitzu bereziak izango dira baita, Lasarte-Hendaia artean, Donostia Egunaren harrira. Ostiral gauez, 22:00-07:00 artean ordu erdiro egongo dira tren zerbitzuak Lasartetik hiribururantz. Amaratik Lasarterantz, 30 minuturo baita, 22:43-07:13 artean.

■ Informazio gehiago:

944 333 333

euskotren.eus

Twitter: @euskotrenEJGV

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

**Patricia Jaitexea**  
- bazkariak EGUNERO  
- afariak, asteazkenetik larunbaterara  
☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

**Usurbil Autoak**  
MEKANIKA-KARROZERIA  
SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!  
ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA  
☎ 943 36 10 79

## Zubietako espetxe berriaren proiektuan aurrerapauso nabarmenik ez

**E**z atzera ez aurrera segitzen du Martuteneko espetxearen itxierak eta Zubietako espetxe berriaren proiektuak. Donostiako Udaleko alkate Eneko Goia eta Espainiako Espetxeetako Zuzendari Miguel Contrerasesk urtarrilaren 10ean Madrilen gai honi buruz egindako bileran, Martuteneko espetxea ahal bezain laster itxi eta Zubietako Eskuzaitzeta eremuan aurreikusia dagoen espetxe berria ahalik eta lasterren eraikitzea beharrezko eta premiazkoztat jo zuten bi erakundeek.

Baina ezer gutxi gehiago. Espetxearen leku aldaketa gauzatzeko neurririk ez dutela zehaztu adierazi zion Espainiako espetxeetako zuzendariak Donostiako alkateari. Espainiako Gobernuako Barne Ministeritzari eta Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Orokorrari erabakiren bat hartzera bultzatzeko konpromisoa hartu zuen halere, Contrerasesk.

### Martutenekoaren etorkizuna

2018ko erronken artean kokatu zuen urte hasieran Eneko Goiak, Martuteneko espetxearen itxiera eta kartzela Zubietara lekuz aldatu ahal izateko konpromisoak zehaz-



Lur mugimenduak eginak daude, baina eraikitze lanak ez dituzte hasi oraindik.

### EGITASMOA, GELDI

#### Martutenekoa itxi eta Eskuzaitzetan eraikiko da espetxe berria

tea. Joan den asteko bilera garrantzizkoztat jotzen zuen horretarako, espetxearen leku aldaketa gauzatzeko konpromisoa datekin zehaztu asmo baitzuen.

Bilera ostean, gehiago ezin dutela itxaron adierazi zuen Goiak, gai honi berehalako irtenbidea eman behar zaio. Gogoan izan, Martuteneko espetxea ixtea ezinbestekoa du hiriburuko Udalak Donostia zonalde horretan hazi eta garatzeko. Etxebizitza berriak eraiki nahi dituzte eremu horretan. Gainera ingurune horretan uholdeak saihesteko egin

diren hobekuntza lanak tarteko, inguratzen duen zonaldearen altueraren azpitik geratu da Martuteneko espetxea, lau metro beherago. Uholdeen kalteak jasateko arrisku handiagoa du orain aipatu espetxeak.

Zubietako espetxe berriari dagokionez, EAJ-ren diputatu batek azaroa amaieran Madrillgo Kongresuan gai honi buruz Espainiako Gobernuako Barne Ministro Juan Ignacio Zoidori eginiko galderari erantzunez, Zoidok zioen, Martuteneko espetxea Zubietakoa eraikitzen amaitu aurretik itxi dezaketela. Lehenago ordea, kartzela berriaren kokagunean, Eskuzaitzeta eremuan sortu diren arazoak konpondu nahi dituzte. Gogorazazi zuenez, ezponda eraikitzeke plana esleitua dute. Horren gainean eraiki asmo dute Zubietako kartzela.

## “09550 Zuberora”, Tripontzia Urteberriko Sari Nagusiko zenbaki saritua

Urduñan egokitu da, Gure Esku Dago mugimenduak euskaren gizarte erakundearen Kontseiluarekin elkarlanean urtarrilaren 15ean zozketatu zuten Tripontzia Urteberriko Saria. “09550 Zuberora” izan da txartel saritua. Jabeak 60.000 euro irabazi ditu. Adi ordea, zenbaki bera duten txartel gehiago baitaude, gainerako eskal

herrialdeen izenekin. Haietako bat baldin baduzu, 6.000 euro egokitu zaizkizu. Informazio gehiago: tripontzia.eus

### Herritarren Ituna

Ekimen honen bi sustatzaileek zozketarako txartelak salduz jasotako laguntza, Gure Esku Dago eta Kontseiluaren proiektuak finantzatzera bideratuko

da. 2018rako Gure Esku Dago dituen erronken artean, Herritarren Ituna osatu, herri galdeketa gehiago antolatu eta ekainaren 10erako mobilizazioa deituko du erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduak. Mobilizazio hau, urtarrilaren 27an Donostiako Eureka zientzia museoan aurkeztuko du Gure Esku Dago.

### Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa

Behin betiko eskaera onartuen zerrendatan zaudeten herritarrok gogoan izan; Ugartondoko babes ofizialeko 46 etxebizitzaren eta 46 etxebizitza tasatuen zozketa urtarrilaren 25ean egingo da, Usurbilgo Udalak arratsaldeko 18:00etan Oiarde Kiroldegian antolatu duen ekitaldi publikoan.

### Urbilen handitze eskaerari buruzko herri batzarra

Urbilek aipatu merkatalgunearen azalera nabarmen handitzea eskatu dio Usurbilgo Udalari. Ez da bakarra. Inguruotan azalera handiko hainbat gune irekitzen edo handitzen ari dira, besteak beste, “Garberaren handitzea, Illunbe, Txingudin outlet erraldoi bat edota gure herritik gertu, berriki, Mercadona”, aipatu ditu adibide moduan Usurbilgo EHBilduk. Horregatik, gai honen inguruan hausnartzeko beharra ikusten du koalizioak eta bere oinarri sozialarekin elkartu nahi du.

Urbilen handitze eskaerari buruz jarduteko herri batzarra antolatu du Usurbilgo EHBilduk ostegun honetarako, urtarrilak 18, iluntzeko 19:00etan Potxoenean. “Parte hartu, garrantzitsua baita! Usurbil bizia nahi dugulako!”. Gai honi buruz Usurbilgo Udalak duen ikuspegia herritarrekin partekatu eta herritarren iritzia bildu nahi dira hitzorduan, Urbili erantzun bat eman aurretik.



Batzarra urtarrilaren 18an egingo da, 19:00etan Potxoenean.





## Ttun ttakun mintzo den poeta hilezkorra

Ez dok Amairu taldearen sustatzailea, Jesus Mari anaiarekin batera txalaparta modernitatearen bidean ipini zuena, naturaren poeta, Mikel Laboarekin batera eternidadera iritsi zen kantagilea... Askok dira

aitortu zaizkion merituak.

Joxan Artzek (Usurbil, 1939-2018) oso gaixorik eman zituen azken hilabeteak. Baina, hori ere, modu diskretuan eraman zuen.

Urtarrilaren 12ko goiz tris-

tean bere heriotzaren berri zabaldu zenean, dolumin mezuez bete ziren sare sozialak. Egunotan, hedabide nagusietan, luze eta zabal aztertu dute Joxan Artzeren balioa eta bere unibertso poetikoa. Gehigarri

berezi honen bitartez, bestelako erretratua osatu nahi izan dugu. Bereziki, herkide izan zituen hainbat lagunei hitza emanaz.

Argazkia: Ibai Arrieta (2014).

Joxan Artze, 1939-2018

# Poesia plazara eramán zuen lehen poeta

**G**auza batzuk jakinak dira: “Ez dok Amairu taldearen eta Baga, Biga, Higa sentikariaren eragile nagusietakoa izan zen”. Horretaz gain, “bere anaia Jesus Marirekin batera txalapartaren erabilera modernoa sustatu zuen”. Beste kontu asko, ordea, egunotan ikasi ditugu. “Poesia plazara, eszenariora eramán duen lehen poeta izan zen”. Susa argitaletxeak 2000. urtean argitaratu zuen antologiaren hitzaurrean halaxe dator jasoa. Horretan ere, aitzindaria izan zen Joxan Artze.

## Mikel Laboa eta Joxe Antonio Altunaren omenaldietan

Azken urteotan ordea, ez zuen erreztaldirik eskaini. Medikuek hala aholkatuta, jendaurrekoak alde batera utzita zeuzkan.

Mikel Laboari Usurbilen eskani zitzaion omenaldian aldiz, ez zuen hutsik egin nahi izan. 2009. urtean izan zen hura, Zumetaren muralaren



2011. urteko uztailean, Joxe Antonio Altuna alkate ohia omendu zuten. Ziurrunenik, hura izan zen herrian eskaini zuen azken erreztaldia.

aurrean.

Bi urte beranduago, 2011ko uztailean, Joxe Antonio Al-

tuna alkate ohiaren aldeko ekitaldian hartu zuen parte. Olerkiak plazan, jendaurrean

eskainiz.

Orain, Joxan Artze bera loriatzeko garaia iritsi da.

## Bibliografia oparoa utzita zendu da

■ 1966: Ez Dok Amairu taldea sortu zen. Artze taldeko sortzaile eta ideologoa izan zen, Mikel Laboa, Xabier Lete, Benito Lertxundi edota Lourdes Iriondorekin batera.

■ 1969: Ez Dok Amairu taldeko kide batzuekin batera, *Baga, Biga, Higa* ikuskizuna osatu zuen.

■ 1969: *Isturitzetik Tolosan barru* poesia-liburua kaleratu zuen (autoedizioa).

■ Ez Dok Amairu taldea eten ostean, *Ikimilikiliklik* ikuskizunean murgildu zen aipatu taldeko beste kide batzuekin, tartean Jesus Mari anaiarekin batera.

■ 1973: *Laino guztien azpitik* eta *Eta sasi guztien azpitik* poesia-liburuak kaleratu zituen (autoedizioa).

■ 1975ean Artze anaiek txala-



2013an plazaratu zituen azken bi liburuak. Poema asko geratu dira argitaratzeke.

parta oinarritzat hartuta disko bat kaleratu zuten Milango Ricordi etxearen eskutik.

■ 1978: bere lehen ikuskizun poetikoa, *Hitzez eta hotsez* estreinatu zuen.

■ 1979: *Bide bazterrean hi eta*



*ni kantari* poesia-liburua kaleratu zuen (autoedizioa).

■ 1983: *Gizon haundia da mundua, eta mundu txikia gizona* ikuskizuna estreinatu zuen.

■ 1987: *Ortzia lorez, lurra izarrez* poesia liburuak kaleratu

zuen (Elkar).

■ 1988: *Gizon haundia da mundua, eta mundu txikia gizona* (Elkar) eta *Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat* (Zubi Zubiri argitaletxea, 1998an berak sortua) poesia liburuak kaleratu zituen.

■ 1994: *Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat* ikuskizun poetikoa estreinatu zuen.

■ 2000: *Antologia*. Ordura arteko bere poesia lanen aukeraketa. XX. mendeko poesia kaierak (Susa) bildumaren baitan.

■ 2001: *Oihana auhenka* poesia liburuak kaleratu zuen (Jazzle).

■ 2013: *Bizitzaren atea dukegu heriotza* eta *heriotzaren ataria dugu bizitza* poesia liburuak kaleratu zituen Elkar argitaletxearekin.

Joan Mari Torrealdai, idazlea, euskaltzaina eta soziologoa

## “Koherentea izan zen”

**L**iburu bat plazaratzen zuten bakoitzean, Artzeren pentsamenduak zeresana piztu ohi zuen literaturaren zirkuituan. Gaztetan elizatik urrun ibili arren, gerora kristautasunerako bidea hartu zuen. Eta xenda horretan jarraitu zuen azkeneraino. Eraldatze horrek eragin zuzena izan zuen bere poetikan. Bilakaerak bilakaera, Joan Mari Torrealdairen ustez “koherentea izan zen beti”.

Ez Dok Amairuren garaitik zuten elkarren berri. Torrealdai Usurbilera bizitzera etorri zenean, Artzerekin loturak estutzeko aukera izan zuen. “Azken hogeitau urteotan herki-de izan gara. Askotan ikusten nuen eta berarekin elkarrizketa ugari izan ditut, paseotxo batzuk eman ere bai”. Ezagutza horretatik abiatuta, Joxan Artzeren nortasuna nabarmendu nahi du Joan Mari Torrealdai. “Bere obraz gain, bere izaera pertsonala azpimarratuko nuke. Austeroa, bakartia eta koherentea zen. Iritzi propioak zituen”. Zentzu horretan, “modatik urrun bizi zen. Hori eskertzekoa da, berak izan duen ibilbide pertsonalean bestelakorik gerta zitekeelako”.

39 urterekin, gazte gaztetan erakutsi zuen planteamendutik



Joan Mari Torrealdai, 2015eko Manuel Lekuona saria jasotzen.

### JOAN MARI TORREALDAI

**“Bere printzipio propioak jarraitzen zituen, ingurunearen beldurrik gabe. Eta bere inguruak zer pentsatuko zuen kontuan hartu gabe. Hor ikusten dut nik koherentzia”**

urruntzen hasi zen eta espiritualtasunaren bidetik kris-

tautasunera itzuli zen Artze. “Bere posizioak 60ko hamarkadan eta azkeneko urteetan erabat ezberdinak ziren puntu askotan. Ingurunea erlijioa eta elizkoia zenean, erlijioarekin hautsi egin zuen eta horrela ezagutu genuen 60koetan. Bere markak hor daude, bere kantuetan. Orain gizartea beste posizio batean dagoenean, bera kristau sutsu egin zen. Konbertsio bat izan zuen eta konbertsio hori berak modu

pertsonalean bizi izan zuen. Beretzat bizi izan zuen hori, baina modu testimonialean. Ez modu propagandistikoan, ezta besteari eraso eginez”.

### “Bilakaera hori bake-bakean bizi izan zuen”

Hala ere, koherentea izan zela uste du Torrealdai. “Bere printzipio propioak jarraitzen zituelako, ingurunearen beldurrik gabe. Eta bere inguruak zer pentsatuko duen kontuan hartu gabe. Hor ikusten dut nik koherentzia”. Bere kriterio propioekin oso tinko mantendu zen bi posizioetan. Baina Torrealdairen esanetan, “bake-bakean bizi izan du hori dena, inorekin sartu gabe, eta jendeak asko eskertu dio hori”. Usurbilgo jendeak bi posiziotan ezagutu duela dio Torrealdai. “Eta nahiz eta denborarekin posizioz aldatu, uste dut jendeak asko estimatu diola besteekiko erakutsi duen jarrera pertsonal hori”.

Adierazpen hauek Artze hil eta gutxira egin zituen Euskadi Irratian. Pena handia zuela aitortu zuen ‘Faktoria’ irratsaioan. “Egun hauetako batean berarekin egotekoa nintzen, baina elkar agurtu gabe joan da. Pena handia dut horregatik, baina bere obra hor geldituko da, kantuetan”.

## “Sarriegi gertatzen zaigu”

Azkenaldian, gutxitan, Donostiako Igara inguruan elkar topo egin izan dugu. Orduan ere beti bezala ikusi izan dut: Pauso tinko eta elegantea, urrutitik erraz identifika nezakeen pertsona hura alboan zerraman makilaren jarraipena balitz bezala. Orain, heriotzaren ataria zeharkatu duela jakin dudanean, sarriegi gertatzen zaigula pentsatu dut. Sarritan

gertatzen zaigu, Joxean Artze bezalako pertsonekin, batik bat, inoiz ez direla hilko aintzat hartzea. Sarritan gertatzen zaigu, merezimendu eta aitortzak gerorako uztea “naturala” dela pentsatzea. Sarritan, diot, oro har, eta sarriegi, esango nuke, bera hainbeste inspiratzen zuten Oria ibaia eta Andatza mendiaren babesean sortutako gure herri txiki

honetan. Sarriegi.

Joxean Artzek euskarari eta euskal kulturari emandako guztiaz hitz egingo da hementdik aurrera. Ziur nago euskal literaturaren aldarean kokalekua aurkituko duela, merezimendu osoz, gainera, bere gisako artistak ez baitira heriotzaren besoetan desagertzen. Baina, guztiaren gainetik, Usurbilgo herriak zor zion Joxean Artze-

ri zuzeneko aitortza bat, bera aurrean zegoela. Heriotzaren berria jaso dudanean, mikatzagoa suertatu zait sentitu dudana tristura. Izan ere, neronek, zor hori kitatzeko aukera izan nuenean, ihes egiten utzi niolako.

Poesiak besarkatu dezala Arane Errekako bazterretan.

**Mertxe Aizpurua.**

## Balorazioak

### “Adiorik gabeko doinu leunean, agur, agur, agur”

Txoriak  
hegan,  
xuxurlari,  
mezulari,  
goiztiriko argitan.  
Hegaldia pausatu  
eta leihoko hegian  
albiste samina paratu digute,  
Joxean hil zaigu!  
Gure Joxean,  
Txoriak txori,  
Gure bazterretan barna  
hegoak astinduz,  
isiltasunaren izaran,  
lanbro arteko hatsean,  
ahopeka ...  
adiorik gabeko doinu leunean  
...  
Agur, agur, agur...

**Mariaje Imaz, Udarregi ikastolako zuzendaria**

### #JoxanArtze

Hitz gutxi  
mundu zital honi  
bira ta begirada ugari  
ahots sakon itoa  
ta mundu txiki bat eraiki

Hutsa, artzetarra, oteizatarra...  
poesiaren ondoraino iltzatua,  
hitzen arnas eta ahotsen bidaide  
huts betea.

Hi Joxan,  
aspaldiko ta aparteko aitzindari,  
gaur hutsune haugu  
huts betea betiko iltzatua

**Xabier Mikel Errekondo,  
Usurbilen, 2018ko ilbeltzaren 12an**

### “Zure iturritik edaten jarraituko dugu”

JoxAnton Artze joan zaigu.  
Triste gaude usurbildarrak eta  
umezurtz geratzen da euskal  
kultura.

Zure iturritik edaten jarraituko dugu.

**Idoia Torregarai, NOAUA!  
Kultur Elkarteko lehendakaria**



Urtarrilaren 13an, hileta elizkizunak iraun zuen bitartean, Artzeren poema zatiak proiektatu zituzten elizaren horman.

### IDOIA TORREGARAI

**“Triste gaude  
usurbildarrak eta  
umezurtz geratzen da  
euskal kultura”**

### “Euskara eta euskal kultura lau haizetara zabaldu zuen gizona”

Hitzen altxorra baliaturik euskararen zabalkundea eta euskal kultura lau haizetara zabaldu zuen gizona joan zaigu. Gure herritik abiatuak sus-

traiak sendotu zituen txalapartaren bidez eta ondorengoek jakin behar dugu ihartzen ez direla utzi behar.  
**Iñaki Agirresarobe**

### “Barnea kizkurtu eta begiak bustitzen zaizkit”

Joxan hil da esan didate, eta, bapatean nire barnean zerbaitek krakatekoa eragin dit, lurre-ra eroritakoan ateratzen den klank! zarata entzun eta mutu gelditzen zaren moduan, ni ere horrelaxe gelditu naiz. Ga-

rai bateko irudi eta oroimenak etorri zaizkit, ilada luze bat osatu arte. Euskal izaera barnertzen lagungarri izugarria izan da niretzat Joxan. Txalaparta jotzen, Iturengo ttuntturroak gidatzen, bere poema errezialdiak, uff... Barnea kizkurtu eta begiak bustitzen zaizkit.

“Kaixo Joxemai!! Ze moz? Ze moz?” esanaz kalean ikusiko dudala iruditzen zait, hanka punttetan saltoka, bere ibilera arinean.

**Joxe Mari Irazusta**



Joxan Artzeren heriotzaren berri izan eta berehala, poetaren sormen lanak batu eta bere omenez ikusgai jarri zituen Sutegi udal liburutegiak erakus-

keta aretoko leiho parean. “J. Artze gogoan, eta beti, #liburutegietan. Bere lana eskuragarri Sutegi Liburutegian”, ohartarazi zuten sare sozialen bidez.



Joxan Artze zendu zen egunean, dolumin mezuz bete ziren sare sozialak. Eta baita kaleak ere. Lasarte-Orian egina dago ondoko argazkia.

**“Eskerrik asko, Joxean”**

Gaur Joxean Artze zendu da, musikari berritzaile, idazle eta euskal zale amorratua. Ez Dok Amairuko kide eta sortzaile beste gauza askoren artean. Gure doluminak eman nahi dizkiogu familiari eta bere lana goraiatu Euskal Herri osoari egindako ekarpenagatik. Eskerrik asko Joxean.

**EHBildu Usurbil**

**“Agur eta ohore, maixu”**

Zerua Ilun dago ta,  
Txalapartak ixiltasunean Itota  
Txoriak dagoeneko triste,  
Gure Euskara ere hainbeste.  
Handia da utzitako ondarea  
Zaila izango zaigu ahaztea  
Eskerrik asko Joxan bihotzez  
Usurbilek gogoratuko zaitu, nola ez  
Agur eta ohore maixu  
Egun handian ikusiko gara gu  
**EAJ Usurbil**

**“Usurbil harro egon daiteke”**

Bere lana estimatzeko izan du-  
dan azken aukera, *Ikimilikili-  
klik* erakusketagatik izan zen,  
Potxoenean 2016ko ekainean.

Baina jada adin bat dugu-  
nontzat, Joxan Artze Ez Dok  
Amairu taldearen kideetako  
bat da, batez ere. Euskal kultu-  
raren garapenaren garaia izan  
zen, gau beltz eta luze baten  
ostean, eta askatasun usain bi-  
zia zuen. Joxan ere talde horre-  
tan zegoen, nahiz eta gutako  
askok ez zekiten garai hartan.

Normala da, musikaren  
munduan, interpreteek, kon-  
tzertuetan eta diskoetan, jen-  
dearen aurrean agertzen dire-  
nak, txalo eta ospea hartuko  
dute, baina testu edo musika  
egileak, publiko gehienent-  
zako ezezagunak dira. Poe-  
taren errealitate tristea, eta  
Joxan poeta zen.

Lagun batek betirako uz-  
ten digunean, bere oroimena  
dugu. Artista batek uzten di-  
gunean, bere oroimenaz gain,



“Jesus Mari eta JoxAnton Artze... ttakun ttan ttakun... (Akuarela eta tinta)”,  
Xingola Usurbil-en sare sozialetik jasoa.

**ZUMARTE  
MUSIKA ESKOLA**

**“Ohore bat da guretzat,  
zuregandik jasotakoa  
ondorengoei eskaintzea”**

bere lana dugu. Ezagutu ez ge-  
nuenok, oroitzapen pertsonalik  
gabe geratzen gara, baina beti  
Txoria txoria-ren testu ederraz  
gozatzeko izango dugu, edo  
entzun, Mikel Laboa-ren ahots  
indartsuaren bidez.

Usurbil harro egon daiteke;  
bere seme bat euskal kulturaren  
aktore garrantzitsu bat izan da  
XX. mendearen bigarren erdian.  
Agian, Usurbilen garaia da,  
onarpen publikoa egin dezan,  
hainbeste ekarpenengatik.

**Fermin Orue-Echeverria, PSEko  
udal zinegotzia Usurbilen**

**“Berritzen den urak  
ematen digu bizia”**

Ahaztuta genuen  
iturri zaharrak ematen duela  
ur berria.  
Gogoratu dugu  
berritzen den urak ematen digula  
bizia.

**Maite Iribar,  
Usurbilgo euskara teknikaria**

**“Egindako guztiagatik,  
mila esker”**

“Hegoak ebaki banizkio nere-  
a izango zen, ez zuen alde egin-  
go. Bainan, honela ez zen ge-  
hiago txoria izango eta nik...  
txoria nuen maite”. Joxan Artze  
Agirre usurbildar idazle, poeta  
eta txalapartaria. Mila esker  
gure hizkuntza eder honenga-  
tik egindako guztiagatik.

**Gipuzkoa Kultura**

**“Zenbat hitz eder euskal  
musikari”**

Ttakunaren hotsaz lagundu-  
rik, zenbat hitz eder eskaini  
dizkiozun euskal musikari!  
Ohore bat da guretzat, zure-  
gandik jasotakoa ondorengoei  
eskaintzea. Mila esker!

**Zumarte Musika Eskola**

**“Hitzei bizia,  
bizitzari zentzua”**

Bere mundu hartatik, hitzei bi-  
zia eta bizitzari zentzua ematen  
dioten obra utzi digu Joxanton-  
ek, gure mundu honetan, eus-  
kaldun, herri, auzo eta pertsona  
oso izateko. Eskerrik asko.

**Juanjo Allur Dorronsoro,  
Siadeco-ko arduraduna**

**“Osotasunaren bila  
bidelagun ezagutu  
zaitut”**

Joxe Antonio.

Majina pauso emanak dituzu  
hara eta hona, gora eta behera,  
aurrera eta atzera. Gehienetan  
bakarka, isiltasunean, pauso  
sendoz, zerbaiten bila dabile-  
naren antzera.

Zaharra ahaztu eta Berriaren  
bila, eta konturatzeko Egiare-  
kin topo.

Egiaren bila, Argiaren bila,  
Osotasunaren bila bidelagun  
ezagutu zaitut; eta jada, aurki-  
tu duzu.

Bizi Joxe Antonio. Egun  
Haundirarte. Bizi.

**Luismari Ormaetxea**

**“Nire egitamu perfektua  
zu, Joxean”**

Zure besotako egin zenidan  
momentutik orainarteko, egita-  
mu perfektu eta leuna.

Bide berdinari ekin genion  
une bere beretik, egitamu ho-  
bezina.

Izaten genituen elkarrizketa  
bakoitzak hartu du zentzua  
Joxean, denak du zentzua, de-  
nak du egitamu perfektua.

Iturri beretik jarrai dezagula  
edaten maite, ixiltasun magis-  
traletan murgilduz, izan, izan  
gaitzela, soilik izan.

Geroarte Joxean.

Maite eta maiteko zaituen;

**Labrit**

**“Hitza lanabes  
eta sorbide  
zuen poeta  
usurbildarra”**

Hitza lanabes eta sorbide  
zuen poeta usurbildarra hil  
da. “Bi punturen artean, zein  
da biderik laburrena? Bide-  
rik ederrena!”. Beti gogoan,  
Joxan Artze.

**Elhuyar Fundazioa**

Balorazioak

# “Ttakuna herren geratu zaigu”

## “Ikur handia joan zaigu”

Sortzaile eta euskal kulturaren ikur handia joan zaigu. Gure doluminik sentituenak familia eta gertukoentzat. Goian bego, Joxan Artze.

Kabiene

## “Gaur inoiz baino ozenago zure poesia gure barruan”

Zenbat oroitzen! Egun argi-ilunak, txori soinuak, txalparta, zure ahotsa (tarteka ordenagailuarekin haserre), nere pianoa, Urkiatarren eskusoinu eta armoniak, Usabiatarren piano eta kantuak, beti bagenuen zerbait! Gaur inoiz baino ozenago zure poesia gure barruan!

Aintzane Aizpurua Apezetxea

## “Handietan handiena”

Joxan Artze handia joan zaigu. Hegan egitera beste txorien artera. Jada, Mikel eta biok elkari egongo zarete beste kanta eder batzuk asmatzen. Mila esker denagatik Joxan... Plazer bat zen zurekin hitz egitea eta zu entzutea. Zure hizkera goxoarekin. Handietan handiena zinen eta izango zara zauden lekuan zaudela. Senideei besarkada handi bat. Beti izango zara gure bihotzetan. Agur Joxan. Pelex/18.

Jose Luis Elepe



“Usurbilgo gaztetzeko hormetan hainbat irudi margotu genituen noizbait. Horien artean, Artze anaien irudia”, Ugaitz Agirrerren twitter kontutik jaso ditugu argazkia eta argazki-oina.

AEK

**“Jarraituko dugu ez dakitenei irakasten eta dakitenei hitz egiteko aukerak ematen”**

## “Hain urrun, hain hurbil”

Joxan Artze nolabait harrapatu nahi nuen helmuga bat izan da niretzat. Poeta bezala (nire buruari poeta deitzerik baldin badiot). Eta aldi berean, hain urrun ikusita ere, etxeko leihoetik ikusten nuen paseoan, hain hurbil, hain humano. Inspirazio bat izan da, da eta izaten jarraituko duelakoan nago.

Ugaitz Agirre

## “Artista haundiya”

Goian bego Joxan Artze.

Artixta haundiya.

Floxbin Taldea

Eskerrik asko herria egiteagatik Joxean!

Ernai Usurbil

Milesker, #JoxanArtze.

Denis Elortza

## “Ez adiorik”

“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”. Jarraituko dugu ez dakitenei irakasten eta dakitenei hitz egiteko aukerak ematen.

AEK

## “Gure oroimenean izango da beti”

Usurbildar kuttuna eta EHko poeta eta sortzaile handia joan zaigu. Gure oroimenean izango da beti Joxan Artze. Hegoak ebaki banizkio...

Alaitz Aizpurua, udal zinegotzia

## “Hik ereindako ondarea zabalitzen jarraituko diagu”

Hik ereindako ondarea zabalitzen jarraituko diagu. Agur eta ohore Joxan.

Xuban Zubiria, udal zinegotzia

## “Gurekin, bizirik jarraituko du”

Gure herriaren poesia eta kantagintza garaikidearen sortzaile handia. Euskal poesian, kantuan, euskararekiko maitasunean eta gurekin, bizirik jarraituko du.

Markel Olano, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia

## “Ez dut beste parabisuren beharrik ukanen”

“Sua, sugaia, kea eta errautsa izaten dakidanean, naizenean, ez dut beste parabisuren beharrik ukanen”. Agur eta ohore, Joxan Artze.

Irene Larraza, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria

## “Euskal kulturak asko zor dio letraz eta espirituz”

Joan zaigu olerkari fina, musikari lebera eta kulturgile paregabea! Euskal kulturak asko zor dio letraz eta espirituz. Goian bego.

Andres Urrutia, Euskaltzainburua

## “Egindako ekarpena ez dugu ahaztuko”

Bere garaian euskal kulturari eta euskarari egindako ekarpena ez dugu ahaztuko. Mila esker Joxan Artze eta dolurik sentituenak sendiari. Agur Artze.

Kontseilua, Euskararen Gizarte Erakundearen Elkarte

**“Ezagunak diren hitz asko harenak dira”**

Joxan Artze hil da... Euskal kulturaren oso ezagunak diren hainbat hitz harenak dira, Ikastolentzat hauek dira berezikiak, gure leloan agertzen direnak “iturri zaharretik edaten dut. Ur berria edaten, beti berria den ura betiko iturri zaharretik”. Eskerrik asko!

**Koldo Tellitu**

**“Bidegileetako bat hil da”**

70eko hamarkadan euskal modernia posible zela erakutsi ziguten bidegileetako bat hil da. Askok zor dio gure belaunaldiak Joxan Artzeri. Mila esker!

**Mikel Irizar**

**“Jainkoaren bila jardun duen pertsona samur eta maitagarria”**

Egiaren, transzendentziaren, Jainkoaren bila jardun izan duen pertsona samur eta maitagarria izan da. Gogoan izango dugu ‘Karmel’ gure aldikaririk ere. Nire doluminik beroenak etxekoei nahiz inguruko lagun min guztiei.

**Patxi Uribarren, euskaltzain osoa eta idazlea**

**“Inguruarekin bat”**

“Libre izaten eta inguruarekin bat nola izan erakusten duen praktika da kreaio lana. Beti hala izan dela uste dut nik” (Jakin, 1977). J. Artzeren hitzak gogoan bere heriotzean.

**Jakin aldizkaria**

**“Kide handi bat joan zaigu”**

Hotza gaur, kide handi bat joan zaigu... Joxan Artze.

**Euskal Idazleen Elkarte**

Ttakuna herren geratu zaigu.

**Zuzeu**



“Liburu honek 48 urte ditu. ‘Txoria txori’ baino bastante gehiago izan zen Joxan Artze. Hau irakurriz hasi nintzen poema-ustekoak idazten; eskerririk asko, Artze”, Mikel Peruarena Ansa idazlearen txioa.

**IGOR ELORTZA,  
BERTSOLARIA**

**Udaberriaren gailur  
Berdeak neguan elur  
Egin gaituen belaunaldi bat  
Badoa eginez agur  
Joxan Artze, gugan bego**

**“Txalaparta hil ez izanaren arduradun nagusiak”**

Joxean eta bere anaia Jesus Marik txalaparta hil ez izanaren arduradun nagusiak izan ziren.

**Euskarazko Wikipedia**

**“Bere unibertsoa utzi digu”**

Artze joan zaigu, baina bere unibertsoa utzi digu. Eskerrik asko.

**San Telmo Museoa**

**“Izan zarelako gara”**

Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berria den ura, betiko iturri zaharretik.

#JoxanArtze,  
izan zarelako gara.

**Esne Beltza, musika taldea**

**“Lehen obrak euskaltzale guztion harrotasuna sortu zuen”**

Poesiazko lehen edizioak bibliofiloen harrotasuna izan dira beti, baina J.A. Artzeren lehen obrak euskaltzale guztiena sortu zuen.

**Susa literatura**

**“Gugan bego”**

Udaberriaren gailur Berdeak neguan elur Egin gaituen belaunaldi bat Badoa eginez agur Joxan Artze, gugan bego Igor Elortza Aranoa

**“Beti aurkitu dizkiat hire hitzetan behar nituen lasaitasun uneak”**

Beti, beti eta beti aurkitu dizkiat hire hitzetan, behar nizean lasaitasun uneak.

Hi joan haiz, baina hitzak hemen gelditzen dituk. Eta nolako hitzak! Mila esker!

**Juan Karlos Izagirre,  
Donostiako alkate ohia**

**Egur eta haragi**

Joxan Artze gauza askoren-gatik oroitzen genuen, dugu; oraingoan txalapartara mugatu naiz. Txalaparta, aparteko txalo, duela hamarkada gutxi ia pipiek janda desagertu zen geure herriaren melodi, ohol-etan oholtz, egur eta haragi.

#BetikoArgia

**Beñat Hach Embarek**

**“Bidaia on”**

Nabarmena da, nabarmen nabarmena: maite duenaren begietan beti da, beti, oskarbi! Joxan artze. Ohorea da zure lagun eta irakurlea izatea. Txakun-txakun txoriak-txori bidaia on Joxan!

**Mikelazulo Kultur Elkarte**

Joxan Artze. Joxan Artze.  
Joxan Artze. Joxan Artze.  
Joxan Artze. Joxan Artze.  
Joxan Artze. Joxan Artze.  
Joxan Artze. Joxan Artze.  
Joxan Artze. Joxan Artze.  
Joxan Artze.

**Kattalin Miner, idazlea**

Joxan Artzek atea igaro du.  
**Jon Martin, bertsolaria**

Ai, a ze oroitzapenak, Artze anaiak 1972an txalaparta jotzen ikusi nituen lehen aldian (euskaratua)

**Montxo Armendariz, zinegilea**

Ismael Manterola, EHUko irakaslea eta arte kritikaria Berrian

# Zumetak Joxan Artzeri egindako erretratuak,


**E**z dugu gehiegi ezagutzen Gaur taldea osatubaino lehenagoko taldekideen bizitza eta lana. Oteiza eta Basterretxearen arteko harremanak Arantzazun estutu ziren, baina taldeko gazteekin nola jarri ziren harremanetan eta taldekideen arteko harremana zein izan zen ere ez dago batere argi.

Horregatik gustura ikusten da Zumetak Joxan Artzeri egindako erretratuak. Bien arteko harremanen lekukoa delako. 1960an herri bereko 21 urteko bi gazte. Besterik ez Zumetak erretratuak pintatu zuen urte hartan, hurrengo urtetako ibilbideak emango zuenaren berri jakin gabe. Parisera Vespan egindako bidaiaren urte bera. Motor gaineko abentura, hainbatetan ikusi eta irudikatu ditugunaren antzekoa: Godardek *Pierrot le fou* filmean erakusten digun ihesaldia, adibidez. Francoren diktaduratik ihes egiteko beharra, Pariseko askatasunaren bila, artearena tartean.

Ez dakigu Parisa joan baino lehen edo Parisetik bueltan egindako erretratuak den. Lagun bati egiten zaion erretratuak da, besterik ez. Balio izugarria pintorearentzat eta modeloarentzat. Gu voyeur moduan sartzen gara bion arteko harremanean.

Gazte, ia nerabe azaltzen zaigu Artze, begi handi, sudur luze eta ezpain mamitsuekin. Ikusleari begira lotsagabe, baina harro azaldu gabe. Lagun baten aurrean azaldu daitekeen lasaitasuna, konfiantza eta gardentasuna, sarritan lagun arteko argazkitan azaltzen den erakoa.

Zumetak pintura maite du, baina ez da garai egokiena pinturaren nondik norakoak ezagutzeko. Diktadurak Es-



Urtarrilaren 12an, Joxan Artze zendu zen egunean, Usoa Zumetak koadro honen argazkia ipini zuen bere sare sozialean. Eta mezu hau erantsi zion: "Aitak egina 1960an. Agur Joxean". Usoarekin harremanetan jarri ginen eta koadro honen berri duela oso gutxi izan zuela aitortu zigun. Olio taulan egina, 49x38 zm-ko neurria du. Joxanek bere etxean zuen ipinia.

## ISMAEL MANTEROLA

**1960koa da koadroa. "Herri bereko 21 urteko bi gazte, hurrengo urtetako ibilbideak emango zuenaren berri jakin gabe"**

painia ia isolatuta eduki du 50eko hamarkadaren bukaeran zabalte lotsati bat egin badu

ere, batez ere artearen alorrean (arte plastikotan, literaturan eta musikan baino gehiago, hala ere). Beraz, nola hasi berri ere? Ia hutsetik hasi behar zuten bertako artistek aurreko katearekin etena ia erabatekoa zelako. Artzek aipatutako iturri zaharra lehertzera zihoan, eta ur berriak oztopoak zituen kaintutik irteteko. Oteizak bere diskurtso gogorra zabaldu

du, 1957an Sao Pauloko saria jaso ondoren; Txillidak bere lana onartua ikusi du 1958ko Veneziako biurtekoan. Bitartean pinturak zailtasunak ditu aurrera egiteko. Hala ere, Rafael Ruiz Balerdik bere lehen koadro abstraktuak egiten hasi da 1958an, Sistiaga gaztegoak diren artista izan nahi dutenei baliabideak eta laguntzak ematen ari zaie, Parisen



# “bien arteko harremanaren lekuko”

ikusi duen informalismoaren berri emateaz gainera. Donostiako Gabonetako lehiaketak kritikatzan hasi dira 1961ean, 10 artistak protesta egiteko erakusketa paraleloa antolatu zutenean. Taldea osatzen ari dira.

Giro horretan, kontserbado-reak eta akademikoak ziren arte joera nagusiei aurre nola egin ez zekiten artista gazteek. Bazekiten zer ez zuten nahi, baina nola egin behar zuten ez zegoen argi. Hasierara bueltatzea proposatzen diete zaharragoak direnak edo maisutzat hartzen dituztenak. Oteizak behin eta berriz kubismora jotzeko gomendatzen die, batez ere bodegoia hartzeko gai moduan pinturaren alde analitikoan sakontzeko. Ez dirudi artista askoren nahiarekin bat zetorren Oteizaren gomen-dioa. Jarrera espresiboagoak erakarrita bizi dira Sistiaga, Balerdi, Amable Arias eta Zumeta bera. Parisera egindako lehen bidaian beste gauza batzuk ikusi ditu. Horregatik hasierako beste maisu batengana jotzen dute, Matisse Picassoren orde. Gazteak dira, ihes egin nahi dute, eromen puntua eman diktaduraren gristasunari eta elizkoitasunari. Paris



1960an, Usurbildik Parisera abiatu ziren Vespa batean. “Francoren diktaduratik ihes egiteko beharra, Pariseko askatasunaren bila, artearena tartean”. Argazkiok beranduagoak dira. Bertan dira JL Zumeta eta Joxan Artze “Har-tzabal”. Argazkia: JM Zabala. Iturria: ediciones3e.com

## ISMAEL MANTEROLA

**“Itzaletik argira irteten ari den Kristo gazte baten aurrean gaude, ia profetikoa den erretratu baten aurrean, Artzek gero izan zuen bilakaera ezagututa”**

zain daukate. Ekialdeko eraginak ere ailegatzan ari dira. Txillardegik *Leturiaren* egunkari ezkutua eta Peru *Leartzako* argitaratu ditu eta existentzialismoak budismoaren filosofia-rekin bat egiten du.

Erretratu honetan hori guztia

islatzen da, Mari Paz Jimenez, Menchu Gal eta Balerdiren erretratu pintatzeko eredu espresionistak, Frantziakoak, baina agian alemaniarrek ere. Batez ere aurpegi zurbil horretan, Modiglianik El Grecori hartu zion deformazio mota aplikatuta. Espiritualtasun liriko baina gehiago (Balerdik abstrakzio liriko izeneko koadro serieari 58an eman zion hasiera), espiritualtasun bortitza goa, Zumetari beti gustatu izan zaion kolorearen indarra, Artzeren erretratuan batez ere arroparen gorri distiratsuan (suaren, grinaren, sinismenaren gorria) eta pintzelkadaz

egindakoan nabaritu daitekeena. Baina baita belarri ez oso zehatzetan ere, pintzelak kolorea ia urratu egiten duen ezkerreko belarrian. Menchu Galek hain gogoko zuen Soutinen gogortasuna akordarazten du, pintatzeko eran, ez erretratu eraikitze orduan, askoz ere formalagoa baita, Modigliaren alderdi primitibistaren lerro beltzak eta, agian erromanikotik hartutako begietan, Tàpiesen lehendabiziko pinturatan Mirori jarraitutako eruedetan.

Itzaletik argira irteten ari den Kristo gazte baten aurrean gaude, ia profetikoa den erretratu baten aurrean, Artzek gero izan zuen bilakaera ezagututa. Zumetaren lagun gazteak karisma du, nahiz eta jarraitzaileak ez dituen gogoko. Apostolurik gabeko profeta da, bere herrian arrakasta handirik izan ez zuena garai batean, baina eragin izugarria izan duena batez ere futuristei, dadaistei eta surrealistei lapurtutako poesia formetan (parole in liberta) eta tradizioaren musikan abangoardia ikusi zuelako. Txalaparta futuristen, surrealisten eta Cagen esperimendazioak bezain moderno zela esatera etorri zena, esan gabe, katedra oinarritu gabe. Bere kasa, Zumeta bezala.

## “Ikimilikiliklik J.A. Artzeren unibertsoa” Tolosan da egunotan

Joxan Artzek 40 urtez garatutako lan poetikoan barrena bidaiatzeko aukera ematen digu, 2016ko ekainean Po-txoenean ikusgai izan genuen “Ikimilikiliklik J.A. Artzeren unibertsoa” erakusketak. “Ikus-entzunezko sorkuntza da, ikusleak irudi-, musika- eta soinu-mundu batean murgilduta haren obra ezagutzeko sortutakoa, azken hamarkade-

tako euskal sortzaile original eta garrantzitsuenetako bat ezagutzeko helburuarekin”.

### Apirilean, berriro Donostian

Urtarrilaren 27ra arte Tolosako Aranburu Jauregian izango duzue ikusgai. Otsaila martxoa artean Alzuzan (Nafarroa), Oteiza Museoa. Artzeren heriotzaren berri izan eta ordu gutxira Donostiako

San Telmo Museoa iragarri zuenez hiriburura bueltan etorriko da gero erakusketa, eta unea, usurbildarra omentzeko baliatuko dute. “Aurretatu nahi dizuegu apirilean berriz erakutsiko dugula gure Laborategian “Ikimilikiliklik, JA Artzeren unibertsoa” instalazioa eta omenaldia egingo diogula Joxan Artzeri. Laster emango dizkizuegu xehetasun



Joxan Artzeren ibilbide poetikoan oinarritzen da erakusketa.

gehiago”, iragarri dute San Telmo Museotik.

Jakoba Errekondo Saltsamendi

# Bihitza



“Gure paisaietako xuritasunaren egarri zen. Loreen izenetan. Hitzetan. Izan ere hitzetan biltzen dugu bihia ematen duen bizitza. Bihitza”.

**B**ihia, labore alea edo fruitu txikia da. Landare batek hurrengo belaunaldia bideratzeko sortzen duen fruitua eta hazia. Bizitza bideratzekoa. Datorrenetik berria. Zetorrenetik, bizi denak hurrengo ahalbidetzea. Aurrerabidea gauzatu ahal izatea. Landareak hazia, bere hurrengo landarearen muina. Eta bide ederrenetik, loretik. Landareak hazia emateko lorea azaldu behar du.

Bestetxeko Joxe Anton Arzek, bide ederrenetik, lore xuriak ematen zituzten landareen izenak eskatzen zizkidan. Ez zuriak, eta ez txuriak, xuriak.

## JAKOBA ERREKONDO

**Joxe Anton Arze  
euskarri paisajista  
ederrenetakoa izan zaigu.  
Honez gero argi xuri  
minean da**

Gure paisaietako xuritasunaren egarri zen. Loreen izenetan. Hitzetan. Izan ere hitzetan biltzen dugu bihia ematen duen bizitza. Bihitza.

### Gure paisaietako xuritik

Hona gure paisaietako xuritik: poeten lilipa, izar-belar arrun-

ta, elorri zuria, elorri beltza, maaltza, asma-belarra, oilarana, itsas lilipa, sasi akazia, milorria, sapelarra, garraiska, kala, ezkiluntza edo ezker-te zuria, axaxar edo ziuurda edo ezker-te beltza, ilarra, sasi azaharra, larre-lirioa edo mugetatzea, atzaparra, bebarkia, basaerrata, igebelur zuria, astamenda, erbi isatsa, erle-lore zuria, nasailora, semelora, astalarrosa, otzar basatia, jasmína edo kresmina, San Joan lorea, mendaroa, latxortena, itsabalki zuria, basa azenarioa, basa bitxilorea, ziabelar latza, ziabelar usainduna, artzain zakua, gibel-belarra, basa urre-lilia, marrubia, garikota, en-

dalaharra, aihen zuria, intusasa, intusasa gorria, andura edo txokarroa edo zauka-ziria edo ziaurria, harrautsi zuria, hiru hatzeko harrautsia, hirusta zuria, gaztainondoa, teilatu-belar zuria, estrepa zuria, mairu-belarra, oiloesnea, horma-belar sendakaria, sorgin-baratxuria, hartz-baratxuria, zuhandorra, gorostia, basoetako mingotsa, baso eguerdililia, anbulua, morroina edo borraia, zurikatxa edo txilar zuria, gurbitza, ezkilalorea, ardi-mihia, xanpora, mendiko aingeru-belarra...

Izan ere Joxe Anton Arze euskal paisajista ederrenetakoa izan zaigu. Honez gero argi xuri minean da.

# Ahokotasunaren garrantzia

“Herritar bat”. Lehen definizio hori eman digu Ixabel Agirresarobek. “Pentsa zer nolako adin tartea zegoen bion artean, baina oso gertukoa egiten zitzaidan. Eta denak ezagutzen zituen”. Askotan hurbiltzen zitzaion galdezka, “ez bakarrik lan kontuengatik. Bestelako kontuez ere aritzen ginen. *Jakin dut hau gaixo dagoela eta zer moduz dago...*”.

Zutaz eta zure ingurukoez ere interesatzen zela, alegia.

Artzek garrantzia ematen zion formari. Orri zuriaren aurrean nahiz taula gainean. Adierazgarritasuna asko zaintzen zuen. Hori ere izaten da ipuin kontalari nahiz antzezlearen kezka iturri. “Bazekien ipuin kontalari lanetan aritzen nintzela eta ahokotasunari buruz aritu ginen behin

hizketan. Hitzak zer nolako garrantzia duen ikuslearekin lotura egiteko garaian”. Bate-tik bestera, bakoitza berean, herri asko ezagutu dituzte biek ala biek. “Tokian tokiko herriaren erreferentzia bat egiteak edo bertako euskalkiko hitz bat aipatzeak nola eskertzen duen publikoak. Horretaz ere aritu izan ginen”. Solasaldiok eta beste oroitzapen asko ondo



Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria.

gogoan gordetzen ditu Ixabel Agirresarobek.

Juan Luis Zabala, idazlea eta kazetaria

# Joxan Artze, oroitzapen batzuk

2000 edo 2001 urtearen bueltan hitz egin nuen lehen aldiz aurrez aurre Joxan Artzerekin, Santuenea auzora bizitzera joan berri nintzela. Akaso aurretik, kultura arloko kazetari lanetan, telefonoz hitz egina izango nintzen harekin, baina gogoratzeko moduko harremanik izan gabeak ginen.

Santueneko zubia pasatu berria zuen berak, eta ni pareko janari dendara nindoala ustedut, erosketak egitera. Nik ezagutu egin nuen, jakina, nola ez ba! Joxan Artze! Ez nuen uste, ordea, berak ni ezagutuko ninduenik. Horregatik, ikusi nuenean ez nuen hari kasurik egiteko asmorik. Baina berak egin zidan kasu, ni ezagututa, adeitsu eta abegikor, adiskide hasieratik, eta aspalditik ezagutuko banindu bezala hitz egin zidan. Hika mintzatu zitzaidan eta neuk ere halaxe egin nion, naturaltasun osoz.

Bizpahiru urte geroago, 2003ko udaberrian, berak egin zidan Jesus Mari anaia zendu berriari buruzko liburua idazteko enkargua. Eskertu nion konfiantza, eta berehala hasi ginen lanean. Nire sinadura du Jesus Mari Artze, ttakunaren esku isila liburuak (Zumarte, 2003), baina Joxan eta bion artean idatzi genuen neurri handi batean; edo, beste modu batera esanda, neuk idatzi nuen baina Joxanek gidatuta, zuzenduta eta behar nuen guztian lagunduta. Azken muturreraino eta azken xehetasuneraino lagunduta, jakina, Joxanekin lan eginez gero, izan ere, ezinezkoa baitzen azken muturreraino eta azken xehetasuneraino iritsi gabe gelditzea.

Gogoan dut bazkalondo batean Joxanen etxera lanera joan eta konturatu ginenerako afalordua ondo pasatua ge-



2006. urtean, Juan Luis Zabalak bisita egin zion Joxan Artzeri eta "argazki batzuk atera nizkion etxeko egongelan, bere poemak ordenatzeko arotz bati enkargatu zizkion panelen ondoan". Argazki hau bisita horretan eginikoa da.

## JUAN LUIS ZABALA

**Zorrotza zen batez ere bere buruarekin, baina besteekin ere bai.**

**Euskaldunon Egunkaria itxieraren aurka zegoen Joxan, eta erakutsi behar zen lekuan ere erakutsi zuen hori, nagirik gabe.**

**Baina ez zuen batere gustuko langile ohiok, itxieraren aurka protesta egiteko, 'Egunkaria aurrera!' leloa idatzita zuela atera genuen bisera, "gutziz yankia" zelako**

nuela, eta lotarakoa ere ondo iritsia. Baina ez pentsa nitaz arduratzen ez zenik edo bihotzik gabe esplotazen ninduenik. Gustatzen zitzaion ni Patria berarekin bazkaltzera eramatea, ondo zainduta senti nintzan. Gustatzen zitzaion ni gustura ikustea.

Jesusen biografia idazterakoan familia ere ezagutzeko eta tratatzeko aukera izan nuen, batez ere Beatriz Azaldegi, Jesus zenaren alarguna, eta oso oroitzapen goxoak

gordetzen ditut harreman hartaz. Pena handia hartu nuen 2008an Xanpol Harreguy hil zela jakitean, Joxean eta Jesusen arreba Txaroren senar zena.

Dozena bat urte da Usurbilen bizitzeari utzi nionetik, eta aitortu behar dut harrezkero ez dudala harreman askorik izan ez Joxanekin ez haren ingurukoekin. Joxani pare bat bisita egin dizkiot hala ere tarte horretan. Batean, argazki batzuk atera nizkion etxeko egongelan, bere poemak ordenatzeko arotz bati enkargatu zizkion panelen ondoan. Bestean, duela lau urte, Berria egunkarirako elkarrizketa egin nion, heriotzaren ataria dugu bizitza eta Bizitzaren atea dukegu heriotza (Elkar, 2013) liburu argitaratu berriei buruz. Sekulako lanak hartu ondoren, lortua zuen idatzita zeukan poema mordoaren zati bat behintzat ordenatu eta argitara ematea. Dena den, uste dut argitaratu gabe ere geratu zaiola pila handi bat.

Adeitsu eta abegikor hartu ninduen bisita horietan ere, beti bezala, eta Himalaiako tea hartu genuen elkarrekin, etxe-

ko leihotik Zubietako erraustegia egiteko aukeratutako lekua erakutsi eta proiektu horren burugabekeriari buruzko komentarioak egiten zizkidan bitartean.

Adeitsua eta abegikorra zela esan dut. Baina oso koherentea ere bai, azken muturrerainokoa eta azken xehetasunerainokoa horretan ere. Eta oso zorrotza; zorrotza bere buruarekin lehenik eta batez ere, eta besteekin ere bai, hala izan behar zuela irizten zionean. Badut txorakeria bat dirudien arren zorrotzasun hori ondo erakusten duen oroitzapen bat. *Euskaldunon Egunkariaren itxieraren aurka zegoen Joxan, eta erakutsi behar zen lekuan ere erakutsi zuen hori, nagirik gabe.* Baina ez zuen batere gustuko langile ohiok, itxieraren aurka protesta egiteko, *Egunkaria aurrera!* leloa idatzita zuela atera genuen bisera, "gutziz yankia" zelako. Egunero galtza bakeroak janzen ditugunoi zer pentsatua eman beharko ligukeen anekdota txiki hori da Joxan Artzerengandik gordetzen dudana oroitzapen partikular eta kutunetako bat.

## “Ikaragarria izan zen Ez Dok Amairuk egindako ekarpena eta ondorengo belaunaldientzako eredu izan ziren”

Jexux Artze Kultur Elkarte sortzeko suaren pizgarria Jexux Artzeren heriotza izan zen. Hasieratik erabaki genuen txalapartak eta euskal kultur adierazpide ezberdinak lekua izango zuten ekintzak antolatzeari ekin behar geniola.

Artze anaiek txalaparta jotzen ikasi zuten eta ondoren ia galdurik zegoen musika-tresna horri bere balioa eman eta ezaguna egin zuten, Italian diska bat grabatu zuten txalapartaren doinuekin eta beraiei esker ondorengoek bere erabilera zabaldu dute eta beste musika-tresnekin batera modu anitzetan jotzeko baliagarria dela frogatu dute.

Joxan Artzek Ez Dok Amairu taldearen sorreran parte hartu zuen hirurogeiko hamarkadan Mikel Laboa, Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi, Oskarbi, Julen Lekuona, Irigarai anaiak eta beste hainbatekin batera. Diktaturaren garai ilun haietan euskal kulturari arnasa eta berritasuna ekarri zioten. Ikaragarria izan zen egindako ekarpena eta ondorengo belaunaldientzako eredu izan ziren.

Joxan Artzek urte haietan argitaratu zuen bere lehen diska-liburua *Isturizetik Tolosan barru*. Liburu moderno eta abanguardista izan zen garai hartarako, koloreen eta materialen erabileran, orrialdeen aurkezpenean, dena izan zen berritzailea eta gainera diska bat ere bazekarren.

Ez Dok Amairu taldea desegin ondoren sortu zituen bere poemekin batera musika, antzezpina, irudiak eta performancea lotzen zituzten emanak izan ziren. Ikimilikiliklik!, Gi-



2014ko udaberrian, Jexux Artze Kultur Elkarteak Joxan Artze omendu zuen. Sutegi osoa hunkitu zuen oholtzara igo eta bere esker ona azaldu zuenean. Antolatzaileek Zumetaren margo bat oparitu zioten. Argazkia: Ibai Arrieta.

### JOXERRA FURUNDARENA

**“2013an argitaratu zituen Joxanek bere azkeneko bi poema-liburuak. Jexux Artze Kultur Elkartearen orduan ikusi genuen aukera bere aldeko omenaldi bat egiteko. Joxan Artze Sutegiko emanaldian izan zen eta benetan hunkiturik bere esker ona adierazi zigun. Lasaitasuna sentitzen dugu jakinda gure miresmena adierazi geniola eta berak horrela jaso zuela”**

zon haundia da mundua eta mundu ttikia gizona, Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat eta Oihana auhenka. Usurbilgo dema-plaza inguruko etxeetako eta elizako paretetan irudiak proiektatuz hunkituta ikusi

eta entzun genituen. Hiletaren egunean elizako paretean ikusi eta irakurri ahal izan genituen bere poemak Mikel Laboaren ahotsa eta musika entzuten genituen bitartean. Arratsalde euritsuan elizkizunari kanpotik jarritako aterki ederra izan zen.

2013an argitaratu zituen bere azkeneko bi poema-liburuak Heriotzaren ataria dugu bizitza eta Bizitzaren atea dukegu heriotza. Jexux Artze Kultur Elkartearen orduan ikusi genuen aukera bere aldeko omenaldi bat egiteko. Saiatu ginen poemak errezitatuzera animatu zedin baina horretarako nahikoa indar ez zuela esan zigun. Hala ere zorte handia izan genuen gure enkarguz Bide Ertzean musika-taldekoek poema batzuekin sortutako kanta zoragarri batzuekin eta Metrokoadroka kolektiboko Oier Guillanek eta Asier Sarasolak errezitatutako poema batzuekin emanaldi kuttun bat egin zelako Sutegi kultur etxeko

auditorioan. Joxan Artze bertan izan zen eta benetan hunkiturik bere esker ona adierazi zigun. Kantu eta poema horiekin DVD bat argitaratu zen Usurbilgo udalaren laguntzari esker. Lasaitasuna sentitzen dugu jakinda gure miresmena adierazi geniola eta berak horrela jaso zuela.

Joxanek idatzitako poemak irakurriko ditugu beste behin eta bi anaiek jotako txalapartaren oihartzuna entzungo da betirako. Joxanek Jexuxen heriotzean idatzitako poema baten zatiarekin bukatu nahi nuke gaur,

*Bihotz bakarra gara gaur, betierean, atergabe, ttakun bakarra bitan jo eta jo, kantu bakarra kantatzen:*

*ni zu nauzu,  
zu ni zaitut.*

**Joxerra Furundarena,  
Jexux Artze Kultur Elkarte.**

# “Bihotz bakarra gara gaur”



Joxan eta Jesus Mari, Milango Ricordi estudioan, diskoa grabatzen. Jesus Artze, *ttakunaren esku isila* (Zumarte, 2003) liburuan ageri da argazki hau. Egilea: Roberto Masotti.

Zu hiltzeak ni ere hil nau.

Zu bizi berrira jaio zara,  
ni ere bai,  
ez da inola ere lehengoa oraingo ene bizia;  
zu bizi zaren bizitik ere  
bizi naiz ni orain,  
nigan bizi zarenez,  
bizi zaituenak ni ere bizi nauenez.

Bi bihotz ginen ttakun-ttakunka ixilean,  
etxeko abaroan, guztien ixilik,  
tturukuttun bakun bakana maitekiro jotzen,

bihotzez bihotz elkarri  
bestela esan ezinak xuxurlatzen;  
bihotz bihotzez bion seme-alabokin bilduz  
biziaren misterio joria ospatzen...

Beriaingo eta Ahuñamendietako eta Aralarko  
mendi eta ibarretan barrena,  
harkaitz arteko erreken murmurioekin batera  
gure zorionaren ttakun-ttakunen oihartzuna zabaltzen.

Bihotz bakarra gara gaur,  
betierean, atergabe,  
ttakun bakarra bitan jo eta jo,  
kantu bakarra kantatzen:

ni zu nauzu,  
zu ni zaitut.

**Joxan Artze, *Bizitzaren atea dukegu heriotza* (Elkar, 2013)**

Hiltzea arraroa da,  
norberarena ez den gela batean iratzartzea bezala.

Txikitatik begiratzen diet gorpuei,  
zuzen,  
begiak berriro noiz irekiko zain.

Esku lotuei erreparatzen diet,  
ezpainei, lepoari, paparrari...  
Kieto.  
Zirkinik ere ez.

Aulki hutsak datoz gero,  
arropa solteak pertxetan,  
gauza umezurtzak  
jabe berrien zain.

Maite ditut, nola ez,  
joandakoaren jaka, eraztuna, bufanda...  
Baina ez ditut ondoan behar  
joandakoa gogoratzeko.

Aldean daramat.

Autoa gidatzen noala egiten ditudan  
hausnarretan,  
egunsentiarekin batera eman ohi ditudan  
paseoetan,  
letra bakartiak josteko hautuetan,  
hostoen mudantzan...

Eta aldean daramat bere hitzen musika, gustua, ukitua eta usaina,  
neuk ere maite ditudalako maite nire bazterrak  
lanbroak ezkutatzen dizkidanean...  
San Estebandik Txokoaldera jaitsi eta  
etxera bueltan natorrenean.

Hantxe entzuten zaitut, Joxan,  
lagun koadrilaren berbaro eta guzti,  
Jesus, Mikel, Xabier, Lourdes...  
aita zena ere zeuen artean sumatzen dut,  
kantuan, duora...  
ez dakit nola iritsi den bertara.

Bai, arraroa da heriotza,  
bizitza bezainbeste.

**Yolanda Arrieta Malaxetxebarria. *Usurbilen*, 2018ko urtarrilak 12an.**

Mixel Etxekopar, txirularia, kantaria eta bertsolaria

## “Arteari atea zabalik, euskal hitzez, begi argiz kutsatu gintuzten anitzetan”

Josean, bai eta Jesus anaia, Usurbilen bezain Xiberoan ezagutzeko plazerra izan genuen, Gotainen, XIRU jaialdian arteari atea zabalik, euskal hitzez, begi argiz kutsatu gintuzten anitzetan.

Hitz eta ttakuna josirik sortu zen “Harria eta herria”, eta eman “Oihana auhenka”, olerkialdi taularatuak, musika, hots, kantu, Beñat Axiari bide

lagunarekin. Iñaki Perurena hari altxatzailea, Joxe Vicondoa aizkolari zena ere, elementuen poesia indartsua, bai eta lagun andana oholtzan, gure herriko plazak kurrituz, Lekeitio, Oñati, Elorrio, Zarautz, Itsasu, Iruña... Usurbil ere prefosta!

Eta zenbat aldiz topatu, bortuan Xiberoko gazteekin, Usurbilen berean gure “zubi(ri)-egileekin”, Frantzian behera, Donostiako Kursaal-en,

San Telmon... Hauetan haatik goxoenak kale zaharreko Juan Jose-enean, hitz ostoz betetako egongian, berriketan, Nepaleko tearen urrin ezitia, unea eta gunea goxatzen, goizeko ekia leihotik sartzen. Gero itzulia karrikan, Lizardian irri eta pott, Patrienean etxean bezala... Euskaldun batentako etxetik etxera ibiltzea ez da hau izigarria, Uhaitza eta Oria ondoan ber egarria! Milesker



Joxan Artze eta Mixel Etxekopar, ‘Oihana auhenka’ ikuskizunean.

Artze-Arregitarrrak, usurbildarrrak, bizi izan dena gatik, eta bi mila izanen dena gatik!

## Xiberotik agurra

Josean gurea atariaren atarian dugu, heriotzaren ataria dugunez bizitza. Dena errana dago, dena errana du, dena errana digu, dena idatzia, guk zer gehiago?

Dena prest, abisatuak ginen, etxetik abiatu orduko etxerako bidean garela. Nork maita lezake heriotzarik ez balitz? Eta maitasunik gabe, nor bizi leike? Lizardiko Ama, semea itzuli zaizu! Txo! Zaldiaren lau zangoen hotsa dantzugu berriz, jagoiti ttakuna eta herrena bildurik, lau zango, bi anai, taupada bakarra lurrean... Lurra izarrez, ortzia lorez, oihana auhenka, eta gure bazterrak... lanbrotsu.

Txoria txori, Josean...txori!

Eta nik, txoria nuen maite, eta asko maite duenak asko daki...

Baina aunitz maite duenak aunitz sofrizten du ere.

Egia non date, Usurbilen ala Urepelen, ala bietan egia beretik?

Non dukegu iturri zaharreko ur berria?

Zenbat gauza Josean, zu gabe guhaurek bilatu beharrak orain...

Mixel Etxekopar.



Zuberoan ez ezik, Lapurdin eta Behe Nafarroan ere asko ibili zen Joxan Artze. Duela hamar urte, Hatsaren Poesia jaialdian omendu zuten, Senperen. Usurbilgo poetaren aldamenean, Auxtin Zamora idazlea.

## Denis Itxaso, Foru Aldundiaren izenean: “Hitzak jarri zizkion gure imajinario kolektiboari”

Albiste jakin berritan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Joxean Artzeren heriotza deitoratu zuen, eta euskal kulturari, euskarari eta kantagintzari egindako ekarpen aberatsa eskertu zuen.

“Joxan Artzek hitzak jarri zizkion gure imajinario kolektiboan hain sakon errotuta

dauden hainbat eta hainbat abestiri. Kategoriako pertsona joan zaigu. Esaera, esaldi eta hausnarketa oso sakonak utzi dizkigu, euskarari, haren balioari eta gure kulturari buruz, eta bihotzean gordeta ditugu guztiak”, esan zuen Denis Itxaso Kultura diputatuak albistearen berri izan zuenean.

**Abangoardian**

Itxasok bere “hitz zoragarrien” lirismoa azpimarratu zuen, Mikel Laboaren Geure Bazterrak, Txoria txori edo Zaude Lasai bezalako abestietan, edo askotariko olerkietan. Gainera, gogorarazi nahi du nola sortu zuten Artzek berak eta Mikel Laboa, Xabier Lete,

Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo, Julen Lekuona, Nestor Basterretxea, Jorge Oteiza, Jose Angel Irigarai eta Jexux Artzek Ez Dok Amairu taldea. “Abangoardiako talde horren lana funtsezkoa izan zen, bereziki zailak ziren urte haietan euskal kultura suspertu eta biziberritu zuelako”.

# Xabier Arregi alkatea: “Gure balioak eta ondarea zainduz, etorkizunari begira aritu zen”

**E**uskal kulturak sortzaile handi bat, eta Usurbilek pertsona handi bat galdu duela nabarmendu du Usurbilgo Udalak ohar bidez. “Begiratu erneko pertsona zen, kanpora eta barrura. Kanpoan ibilia bai, baina ezeren gainetik usurbildarra. Herrian egon baino, herrian bizi egin da Artze. Herriko gaiekin, euskararekin konprometitua, eragilea”, adierazi du Xabier Arregi Usurbilgo alkatea. Herriko memoria bizia eta etnografoa baita, Udalaren esanetan, “goitizena ere halakoxea aukeratu zuen, Hartzabal, ondo gure herrikoa”.

Udaletik gaineratzen dutenez, hainbat iturritatik osatutako bere unibertso aberats eta zabalaren oinarrian bere sorterrira Usurbil zegoen eta bere unibertsoa ezagutzeak, gure eguneroko unibertsoa emozionalki, kulturalki eta herri gisa ere zabaltzen duela azpimarratzen du. “Joxanek hemen egin ditu bere eguneroko osteratxoak eta mendi-bueltak. Joxanek bere lan poetikoan, iturriak, zuhaitzak, elurra, txoriak.. horiek erabiltzen dituenean, guk usurbildarrok hemengo bazterrak irudikatzen ditugu, egilearekin halako konplizitate puntu batez”.



2016ko ekainean, Usurbilgo Udalak “Ikimilikiliklik, JA Artzeren unibertsoa” erakusketa ekarri zuen Potxoeneara. Argazkia aurkezpen ekitaldikoa da.

## XABIER ARREGI

**“Artzek utzitako legatua eta ondarea izugarri handia eta aberatsa da”**

Joxan Artze hitz bakar batekin definitzea zaila dela gaineratzen du alkateak. “Poeta, idazlea, txalapartaria... Zaila baita Artze hitz bakarrarekin deskribatzea, bere lana eta ekarria izugarri handia izan baita arlo eta eremu ugarietan, izan literaturan izan mu-

sikagintzan izan herrigintzan. Egun tristea dudarik gabe gaurkoa, baina Artzek utzitako legatua eta ondarea izugarri handia eta aberatsa da, eta gaur eskerrak eman besterik ez dugu”.

Artzeren dimentsio artistikoa, bere ausardia eta ikusmira ere azpimarratu nahi izan du Usurbilgo Udalak. “Bere garaiko kanonekin apurtu zuen, baina sentsibilitate handia erakutsi zuen gure erraiekin, sustraiekin, ondarearekin. Izan ere, iragana eta geroa uztartzen

jakin zituen Artzek. Bereak dira hitzok: “Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura, betiko iturri zaharretik”.

Alkatearen esanetan, “gure balioak eta ondarea zaintzen zituen, baina etorkizunari begira aritzen zen. Iragana eta etorkizuna josi zituen. Erakutsi ziguten aurrerantz egiteko bidea, garairik gordinetan ere”. Hortxe ditugu: etorkizuneko hitzak eta giltzak. Kontzientzia liriko eta etiko bat. Ez adiorik, JoxAnton”.

## Joxanen unibertsoak Usurbilen lur hartu zueneko

“Joxanen unibertsoak Usurbilen lur aurkitu du”, zioen Xabier alkateak *Ikimilikiliklik, J.A. Artzeren unibertsoa* erakusketaren irekieran. Udalak Potxoeneara ekarri zuen 2016ko ekainean, eta bertan egon zen hilabetez ikusgai. Aurretik, Donostiako San Telmo museoan egon zen. Irekiera eki-

taldian, besteak beste, Joxan Artzeren senideak, lagunak eta herrikideak elkartu ziren, eta baita erakusketaren sustatzaileak ere; Usurbilgo Udalak eta Jexux Artze Kultur Elkarteak, besteak beste. “Jende askoren ahaleginari esker” heldu zen erakusketa Artzeren sorterrira, nabarmendu zutenaz.



Zuaznabartarrak, ‘Ikimilikiliklik’ erakusketa zabaldu zen egunean.

# SAGARRONDOTIK SAGARDORA

## 2018KO IKASTARO PRAKTIKOA USURBILEN

Otsailak 10:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA ETA ONGARRIKETA.  
Aitor Etxeandia

Kimaketa  
praktikak  
bertako  
sagastietan  
egingo dira!

Martxoak 3:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA, GAIXOTASUNAK ETA  
TRATAMENDUAK. Aitor Etxeandia

Martxoak 17:

FRUITU ARBOLEN UDABERRIKO EDO ZOTZEKO TXERTAKETA.  
Josu Osa

Apirilak 7:

GARBITASUNA SAGARDOAREN KALITATEAREN LAGUN.  
SAGARDOA EGURREZKO ONTZIETAN ETA SAGARRONDOAREN  
BIZIMODUA. Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondo

Apirilak 21:

ILARGIA ETA EGUTEGI BIODINAMIKOA  
Xabier Akizu

Ekainak 2:

SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA, GAITZAK ETA IZURRITEAK.  
Aitor Etxeandia

Uztailak 14:

FRUITU ARBOLEN UDAKO EDO BEGIKO TXERTAKETA.  
Josu Osa

Irailak 8:

SAGARRAREN HELDUTASUN ANALISIAK. ETXEAN SAGARDOA  
EGITEKO HASTAPENAK. Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiain

IKASTAROEN ORDUTEGIA: 9.00etatik 13.00tara

LEKUA: Potxoenea Kultur Etxea (Usurbil)

Ikastaro osoaren prezioa: 96€ (Alkartasuna Kooperatibako bazkideek DOAN)  
Egun solteetan izena ematea ere badago; jarri Alkartasuna  
Kooperatibarekin harremanetan.

IZEN EMATEA: 943 36 11 14 [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) edo  
On line: <https://www.alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak>





# Erraustegiagatik kezka adieraztea debekatua

Lasarte-Oriako Landaberri ikastolatik 500 metrora eraikitzen ari diren erraustegiaren aurrean kezka eta ezinegona adierazi zuten orain urtebete ikastola kideek, ondoko irudian ikus dezakezuen moduan, Eusko Jauriritzaren Hezkuntza Ordezkaritzak Donostian duen egoitza atarian. Landaberrin hazten eta hezten ari diren ikasle zein hezitzaileengan halako azpiegitura batek izan dezakeen kalteaz kezkatuta agertu ziren hedabideen aurrera.

“Nork ziurtatzen du gure haur ikasleen osasuna ez dela kalteturik izango hemendik ez oso epe luzera, urtero aurreikusten dituzten 155 mila tona errausketaren ondorioz haizatuko diren dioxina eta mikropartikula iragaitzez? Baita errausketaren ondorioz sortuko lirakeen aipatutako



Landaberri ikastolatik 500 metrora kokatzen da erraustegiaren gunea. Bertako langileek euren kezka eta ezinegona azaldu dute behin baino gehiagotan.

kopuru horren tratatu beharreko errausen laurdenaz? Osasunean ondorio kaltegarriak ez dituela eragingo diote, ordea, Aldundiko agintariak; zein oinarri zientifikoz? Eta noren bermez? Ez, behintzat, Europar Batasuneko ingurumen Batzordearena. Piotr Barczak arduradunak dioenez, errausketa teknologiak, onurak baino, kalteak ekartzen ditu ekonomian eta ingurume-

nean”.

Gaineratu zuten, erraustegi proiektua ez dator bat ingurumenaren eremuko egitasmoekin. “Gure ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak eta Agenda 21 proiektuak, ingurumenaren sostengarritasuna jarduerak sustatzea duena helburu, ez lirakeke ez kongruente, ezta bateragarri ere zaborraren kudeaketarako

errausketa proiektua nagusituko balitz”, azpimarratu zuten.

## Pankartak kentzeko agindua

Agerraldi honekin batera, 2016ko maiatzean ikastolako Organo Gorenak eskutitz bidez erraustegiaz zuten ezinegon eta kezka adierazi zioten Donostiako Hezkuntza Deleagaritzari. Joan den ikasturtean ere bigarren saiakera bat egin zuten, baina orain berri eman dutenez, “inolako erantzunik ez dugu jaso, eskutitza bi alditan bidali badugu ere”.

Gutunei ez diote erantzun Hezkuntza Ordezkaritzak baina ikastola atarian jarriak dituzten pankartak kentzea agindu diete Landaberrikoei. Ikastolatik kilometro erdira eraikitzen ari diren erraustegiaz eta planta honek haien osasunean izan dezakeen eraginaz ohartarazten dute pankarta hauek.

## Irakasleen adierazpena

Joan den azaroaren 30ean Hezkuntza Ikuskaritzaren deia jaso genuen Landaberri ikastolan bertan jarrita ditugun pankartak kentzeko aginduz. Pankarta horiek 500 metrora eraikitzen ari diren erraustegiaz ohartarazi eta horrek gure osasunean eragin ditzakeen kalteekiko kezka adierazten dute.

Aurreko ikasturtean irakasleen bi herenek hartu zuten parte zentruan erraustegiaz egindako inkestan; eta horretan %84ak adierazi zuen

Artzabaletan erraustegia eraikitzeak kezka handia eragiten diela.

Klaustroaren proposamenaz Organo Gorenak eskutitz bat zuzendu zion, joan den ikasturtean ere, Gipuzkoako Hezkuntza ordezkarria den Gema Gonzalez de Txabarriri erraustegiarekiko gure kezka adieraziz eta osasun bermeen inguruko argibideak eskatuz. Bada, inolako erantzunik ez dugu jaso, eskutitza bi alditan bidali badugu ere.

Deleagaritzaren jakinarazpen

bakarra, Gipuzkoako delegatuak ikuskariari egindako eskaeraz, pankartak kentzeko ahozko agindua izan da.

Guzti hori dela eta, honakoa adierazten dugu idatzi hau sinatzen dugun irakasleok:

■ Ohitura osasuntsuak eta sostengarritasuna ikasleekin lantzen ditugun era berean, zaborren trataeraren kultura osasuntsu eta sostengarri berbera jorratzen dugu, murrizketa eta berrerabilpena sustatuz.

■ Pankartak eta hormirudiak adierazpen jardueratzat ditugu

gure ikastetxean, eta, aldi berean, bizitasun eta askatasun adierazle ere.

■ Hausnarketan eta errespetuan oinarrituta, arazo komunei irtenbide kolektiboak bilatzearen alde aritzen gara.

■ Azkenik, erraustegiaren tximiniak bota litzazkeen dioxinen aurrean gure kezka berresten dugu.

**Koro Martija eta Iñigo Aldabal-detrekuek, Landaberri ikastolako 54 irakasleen izenean**

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Kima**  
MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

# Sagar ekoizpen oso ona eta uzta historikoa

Aurreko urteetan baino kolore argiagoa, usai-menean oso garbia, karboniko maila onekoa eta oro har, sagardo oso orekatua dastatuko dugu abian den txotx bolada honetan. Sasoi berria aste hasieran aurkeztu zuen aste hasieran Sagardoaren Lurraldeak, Astigarragan ospatu zuten 25. Sagardo Berriaren Egunaren baitan.

Erakunde ezberdinetako eta sagardogintza sektoreko ordezkariak bildu zituen ekitaldian azpimarratu zuten, sagar ekoizpena oso ona izan da, uzta historikoa lortu dela diote. Kokagune desberdinetako sagastien artean ezberdintasun nabarmenik ez omen da izan, bai aldiz, sagar barietateen artean. Heldutasuna aurreratu omen da oraingoan, 17. urtez segidan, iraila hasieran Fruitel eta Sagardoaren Lurraldeak Gipuzkoako sagasti ezberdinetako sagarraren egoera eza-gutzeko egin zuten kontroleko emaitzen arabera. 14 barietate kontrolatu dituzte: Aritza, Errezila, Gezamina, Goikoetxe, Manttoni, Moko, Mozolua, Patzoluia, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Verde Agría.

## Aurpegi ezagun ugari

Urtero gonbidatzen dute aurpegi ezagunen bat txotx boladaren hasierara; aurtengoan Alberto Iñurrategi eskalatazile



Alberto Iñurrategi eskalatazile eta mendizaleak izan du aurtengo txotx denboraldia zabaltzeko ohorea.

## AURTENGO DATUAK

**“12 milioi litro ekoiztu dira Euskal Herrian. Ekoizpenaren %30a bertako sagarrarekin eginikoa”**

eta mendizaleak izan du Astigarragako Gurutzeta sagardotegian ospatu zuten txotx irekieran lehen tragoa edateko ohorea. Eta berarekin batera, 2018koa 25. edizioa izanik, azken mende laurdenean gonbidatu izan duten jende eza-gun gehiago ere bertaratu zen ekitaldira.

## Zenbakitan

■ 12 milioi litro ekoiztu dira Euskal Herrian.

■ Ekoizpenaren %30a bertako sagarrarekin eginikoa.

■ 48 sagardotegik egin dute Euskal Sagardora bideratutako sagardoa: Gipuzkoako 41ek, Bizkaiko 5ek eta Arabako 2k.

■ Euskal Sagardoa Jatorri Izen-dapeneko sagardoa ekoizteko, 250 hektarea eta 200 sagardogile baino gehiagoren 6 bat milioi kilo sagar erabili da.

■ 11,7 ° Brix-koa izan da azukre maila, azken urteotakoa.

■ Almidoiaren erregresioa aldiz, 3,8koa, “azken bost urteetako altuena”.

## 2018rako erronkak

Hainbat erronka marraztuak ditu urte berrirako Sagardoaren Lurraldeak. Batetik Euskal Herria munduko sagardo turismoaren mapan kokatzea. Norabide horretan hainbat urrats eman direla gogorarazten dute.

“Nazioarteko hedabideetan eta sareetan komunikazioa indartu da, atzerriko publikoari begirako esperientziak sortu dira eta sagardoari buruzko II. Sagardo Forum jardunaldiak ospatu dira”. Eta aurtengoa, sagardo turismoaren inguruko nazioarteko sare bat osatu asmo dute.

“Euskadiko sagardotegietan gastronomiari lotutako eskaintza turistikoa” ikerketa proiektua garatu eta eskatutako baldintzak betetzen dituzten sagardotegien mapa osatuko dute aurtengoa. Sagardoaren ekoizpen prozesuaren urtaroko zikloarekin lotutako ekitaldiak ospatu nahi dituzte, edota Sagardoetxea Museotik Sagardoaren Lurraldeko sagardotegiek nazioartean ekoizten dituzten produktu ezberdinak hedatu.

## Hasi lekua hartzen

### Aginaga sagardotegia

Aginaga.  
943 36 67 10 // 943 37 06 68.  
info@aginagasagardotegia.com

### Araeta sagardotegia

Berridi bidea 22, Zubieta.  
943362049 (urtarrilaren 18tik aurrera).

### Iruin sagardotegia

Petritza bidea 12, Zubieta.  
Telefono zenbakia: 943 361 229.  
ion@iruinsagardotegia.com

### Arratzain sagardotegia


Arratzain baserria, 22.  
943 366 663.  
info@agroturismoarratzain.com

### Saizar sagardotegia

Kalezar, 39.  
943 37 39 95.  
sidreria@sidrassaizar.com

### Aialde-Berri sagardotegia

Aialde Berri 37, Santuenea.  
943 365 031.



### Urdaira sagardotegia

Urdaira baserria, Aginaga.  
943 372 691.

## Pagazpe Pilota Elkartearen familia-argazkia



Aurreko astean, frontoian elkartu ziren kategoría guztietako pilotariak. Jokalari bezainbeste guraso zegoen argazkia ateratzeko.

## 200etik gora kirolari izena emanda

**G**orantz doa etengabe Irisasi BTT "Hotzak akabatzen" ekimenerako izen emate kopurua. Jada 200etik gora kirolarik bideratu dute inskripzioa urtarrilaren 28an ospatu eta bizikleta gainean egingo den mendi probarako, tartean 33 usurbildarrek. Gainerakoan, Donostialdea, Buruntzaldea, Urola Kosta, nahiz Hego Euskal Herriko txoko desberdinetako kirolariak daude apuntatuta.

Urtarrilaren 28an ospatuko den mendi bizikleta gaineko probarako izena, kirolprobak.com atarian sartuta eman dezakezue hilaren 26ra arte. Federatuek 18 eurotan, federatugabeek 20 eurotan. Proba egunean bertan, 8:45 arte ere izen emateko aukera izango duzue 25 eurotan. Apuntatzen diren lehen 500 lagunek mallota ja-



Urtarrilaren 28an egingo da Irisasi BTT Hotzak Akabatzen bizikleta proba.

soko dute opari. Urtarrilaren 28ko proban, zailtasun maila ezberdinetako hiru ibilbideren artean hautatu ahalko dute parte hartzaileek. Goizeko 9:00etan irtengo dira Mikel Laboa plazatik.

Antolakuntzaren oharra:

kirol ekimen honetan parte hartu nahi duten 16 urtetik beherakoak Irisasi BTT-koekin hartuemanetan jarri behar ko dira, irisasibt@gmail.com helbidera idatziz.

Informazio gehiago, andatzamendizale.info atarian.

### Eskubaloi partidak

**Urtarrilak 20, larunbata**

■ 09:30 Alebin neskek, Gipuzkoa:

Udarregi 5B-Elizatzko

■ 10:30 Infantil neskek, Gipuzkoa:

Udarregi B-Egia 3

■ 11:45 Infantil mutilak, Gipuzkoa:

Udarregi A-Tolosa A

■ 16:00 Kadete mutilak, Euskal Liga:

Usurbil K.E.-Basauri

■ 17:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga:

Usurbil K.E.-Basauri

■ 19:30 Senior mutilak, 1. nazionala:

Usurbil K.E.-Tolosa

### Futbola Haranen

**Urtarrilak 19, ostirala**

■ 20:00 Jubenil mutilak:

Usurbil F.T.-Hernani C.D.

**Urtarrilak 20, larunbata**

■ 09:30 Alebin mutilak:

Udarregi 6B-Urnieta 6B

■ 10:30 Infantil mutilak:

Usurbil-Orioko

■ 12:00 Erregional mutilak: entrenamendua

**Urtarrilak 21, igandea**

■ 11:00 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Antigua Luberri K.E.

■ 16:15 Erregional mutilak:

Usurbil F.T.-Pasaia K.E.

### Pilota partidak

#### Aginagan

**Urtarrilak 20, larunbata**

■ 10:00etan Gomazko paleta, mutil nagusiak 1. maila:

Pagazpe / Altzatarra

■ Eskuz binaka, jubenilak

1. maila:

Pagazpe 2 / Zestoa

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

**ANORGA TXIBI S.L**  
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza  
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak  
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

## ETXEBIZITZA

## Salgai

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup> terraza, 8 m<sup>2</sup> trastelekua eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Atikoa salgai garajea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 359.000 euro. 679002101.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m<sup>2</sup> trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Ge-

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriena. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

hinez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

## Alokairuan

Pisua edo gela alokatzen da Santuenean. Oso ondo dago. 667 912 307 / 626 428 463 / 607 668 603

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegia edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil.

Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Peugeot Partner bat salgai. Diesela. 110 zaldi. 2009. urtekoa. 140.000 km. 665 71 53 21

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekabixi 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolfer tuareg markakoa. Muntaia azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat

erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 ziilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup> karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Zubietan, goizetan etxeko lanak egiteko emakume behar da. Lanaldi erdia. Tel. 695 783 202

Zerbitzari bat behar da, karta-rekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziakin. Tel. 632 576 258

Pertsona helduak zaintzen lan egingo lukeen mutil bat naiz. Larunbat eta igandetan, esperientzia daukat. Tel. 632 793 747

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo aste-burutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo aste-burutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

## Heriotzak

**Germán Hernández Gascón**

89 urterekin hil zen. Urtarrilaren 10ean, Aginagan



## Heriotzak

**Jesus Arruti Gonzalez-Etxeberria**

77 urterekin hil zen. Urtarrilaren 11n, Usurbilen



## Heriotzak

**Joxan Artze Agirre**

78 urterekin hil zen. Urtarrilaren 12an, Usurbilen



**OHARRA:** 2018ko urtarrilaren 26an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: urtarrilaren 22an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Espe-rirentziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna mo- duan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, anima- liak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina gar- bitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona hel- duak gauze zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantzatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskain- tzen da oporretan umeak zain- tzeke. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, kla- se partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaz- teleran, ingelesean eta frantse- sean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketetan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, or- duka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostirale- ra. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, or- duka, gauetan... edoizen modu- tan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak

zaintzeko edo garbiketetan lan egi- teko. Interna moduan, orduka edo gauze. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan la- nean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketetan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke or-

duka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukal- dearen ezagutzak). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxee- tan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona hel- duentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak

zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiket- an, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egin- go nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila da- bil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zain- tzen edo garbiketa lanetan. Bere- hala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo hel- duak zaintzen edo etxeak garbi- tzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 18** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 19** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 20** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 21** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Astelehena 22** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Asteartea 23** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteazkena 24** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

## Urtarrilak 18 - Urtarrilak 28

**Osteguna 25** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Ostirala 26** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 27** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 28** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak** [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

### BESTELAKOAK

Klase partikularrik eskaintzen dira, akademikoak eta gitarrakoak. Interesatuak deitu zenbaki hone- tara: 634 412 682 (Josu).

Udarregi Ikastolan klase partiku- larrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean Donostiara doan Usurbilgo auto- bus geltokian poltsa gorri batean galtza bakero batzuk utzi nituen. Norbaitek ikusi edo hartu badu deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an katurua txiki bat (ninf) galdu da. Txuria eta es- kubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxe- ko membrilloa salgai. Interesatu- zero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko ni- tuzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arra- zakoak saltzen dira. 637 974 994

Pago egurra salgai (txinis- ko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbi- gunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren la- runbatetan: 9:00-13:00 artean

# Agenda

urtarrila

## 19 ostirala

### ■ Danborradak. Udarregi Ikastolan:

15:45 HH-koen danborrada saioa Agerialden.

16:10 LH-koen danborrada saioa Agerialden.

Eguraldi txarra egingo balu, Agerialdeko patioko aterpean.

### ■ Futbola Haranen. Ikus 27. or.

## 20 larunbata

### ■ Futbola Haranen. Ikus 27. or.

### ■ Eskubaloia Oiardo Kiroldegian. Ikus 27. or.

## 21 igandea

### ■ Futbola Haranen. Ikus 27. or.

## Datorren astean, erraustegiaren aurkako mendi martxa

**E**rraustegiari lotuko zaion goi-tentsioko linearen proiektua ezagutzeko mendi martxa antolatu du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak urtarrilaren 27rako:

### Urtarrilak 27, larunbata

Irteerak Azkorterera:

■ 10:00 Lasarte-Oriako Okendo plazatik eta Andoaingo Goiko Plazatik.

■ 10:30 Urnietako Zaldundegitik eta Hernaniko Gudarien Plazatik.

■ 11:30 Proiektuari buruzko informazioa eskainiko da Azkorteko ermitan.

■ Ondoren, Lasarte-Oriara ibilbidea.

■ 13:00 Azken ekitaldia Lasarte-Oriako



Urtarrilaren 27an, eguerdi partean, proiektuari buruzko informazioa emango dute Azkorteko ermitan.

Okendo plazan.

■ Deitzailea: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.

## KzGuneko ikastaroak

Urtarrilean arratsaldez egongo da zabalik Usurbilgo KzGunea. Arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

■ Urtarrilak 17-26, 16:00-18:00.

Ikastaroa: "Argazki ukitua GIMP erabiliz".

■ Urtarrilak 29-30, 16:00-18:00.

Ikastaroa: "Argazkiak. Zure argazki guztiak antolatu edozein gailutik".

■ Urtarrilak 29-30, 18:00-20:00.

Ikastaroa: "Instagram".

■ Urtarrilak 31, 16:00-18:00.

Ikastaroa: "Ordainketak Interneten segurtasunez".

**Informazio gehiago:** Kale Nagusia, 37.

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

### Datozenak

## Datorren astean, zinea Sutegin

Udarregi Ikastolako DBH4-ko ikasleek apirilean Bartzelonara egingo duten bidaia gastuei aurre egiteko abiatu zuen azaroan, "Ostiraletako zinea" zikloa Sutegin. Urtarrileko proiektzioa ohi baino astebete beranduago dator, hilaren 26an. "Girlhood" filma eskainiko dute, jatorrizko bertsoian, euskarazko azpitoluekin:

### Urtarrilak 26, ostirala

■ Ordua: 19:00.

■ Tokia: Suteginiko auditorioa.

■ Sinopsia: "Marieme familia-inguruneak, kale itsu batera daraman eskola-ibilbideak eta auzoko mutilen legeak zapalduta bizi da, baina hiru neska askatasunzale ezagutzean, bizimodu berri bat hasiko du. Izena eta janzkera aldatu eta ikastetxea utziko du bandan onar dezaten, askatasunerako bidea izango den itxaropenarekin".

■ Sarrerak: egunean bertan 2 euro.

■ Jatorrizko hizkuntza: frantsesa.

■ Azpitoluak: Euskaraz.

■ Iraupena: 112 min.

■ Urtea: 2014.

■ Antolatzailea: Udarregi Ikastolako DBH4-ko gazteak.

■ Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

# ELORZA

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S.L.

## 661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

## ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox. altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

## ALDAMU



KONPONKETAK  
KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

# URDAIRA

## Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 6ra  
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baseria Ereñotzu - Hernani  
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrel  
sagardo hoberenak eskeintzen.

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubieta

# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

## aginaga

### SAGARDOTEGIA

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA



### 943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

100% bertako sagarra

### Tel: 943 365 031

Santuenea



*Eskerrik asko Artze.*



Usurbilgo Udala

Ttakun, ttakun, ttakun, ttan,  
ttakun, ttakun, ttan,  
ttakun, ttakun,  
ttan, ttakun,  
ttankun, ttan,  
ttakun, ttan,  
ttakun, ttan,  
ttakun